

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Herriak behar zuen kultur gunea mustu zuten 2003. urtean / 2-3

Zurrumurruei agur

Elkarbizitza baikorraren aldeko kanpaina hasi du Anitzartean zerbitzuak / 5

Josu Etxeberria txirrundulari iturmendiarra, Nafarroako junior mailako txapelduna / 18

Gozategik G puntua disko berria kaleratu du, taldearen nortasuna gordetzen duen diskoa / 23

Uharte Arakilgo Udalak udaletxeko bigarren solairua egin eta igogailua martxan jarriko du / 11

Zahartze aktiboa sustatzeko Jubiloteka martxan jarriko dute Burunda mendebaldean / 7



15 urte hauetan Iortia kultur gunean gauza asko antolatuta dira, bai kanpoan, bai barruan. ARTXIBOA

Kulturaren tenplua

Hamabostgarren urteurrena ospatzen du aurten Altsasuko Iortia kultur guneak. Kultur arloko diziplina guztiak hartzen ditu eraikinak, eta Nafarroako kultur eraikin erabiliena dela diote datuek. Kultura kontsumitzeko ohitura sortu du guneak.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
2003ko apirilaren 4an mustu zuten Altsasuko Iortia kultur gunea, orain dela hamabost urte. Zinema, musika, dantza, antzerkia, arte erakusketak, hitzaldiak, literatura ekimenak eta abar hartzen ditu eraikinak. Kultur gunearen barruan, gainera, udal liburutegia dago. Guztira, 3.000 metro koadroko eraikina kulturari eskainita.

1980ko hamarkadan Bengoetxea zinema aretoa itxi zutenetik, Altsasuko herritarrek zinema aretoa eskatzen zuten. Gure Etxea

eraikinak erakusketak hartzen zituen, baina txiki gelditzen zen. Herriak kultur gune bat behar zuen. "Garai horretan kiroldegian eta frontoian egiten ziren emanaldiak, eta baldintzak txarrak ziren", azaldu dute Juan Manuel Herrero Zapak eta Merche Herrerrak, Tarima Beltza antzerki taldeko kideak.

Hamabost urte

2000. urtean eraikitzen hasi ziren Loperena Portillo eta Javier Flores arkitektoek diseinatuta-ko eraikina eta 2003ko apirilaren

4an mustu zuten. Hortaz, hamabost urte pasa dira Iortia mustu zenetik, eta ordutik 490.000 erabiltzaile baino gehiago pasa dira antolatuta diren 4.500 emanaldietan eta ekimenetan parte hartu dutenak. Urtero 300 bat ekimen antolatzen dira Iortia kultur gunean. Nafarroako Antzerki Sarearen buruan jartzen da Iortia, Nafarroako kultur instalazio bisitatuena bihurtuz. "Eskaintzak oso onarpen maila ona du", adierazi du Betisa Anda Altsasuko Kultur teknikariak. Herriko elementu garrantzitsua bihurtu

da Iortia: "gazteek ez dute kultur gunerik gabeko Altsasu", adierazi du Herrerok.

Kultura kontsumitzeko ohitura sortu du Iortia kultur guneak. "Aspaldi baziren antzerki talde ibiltariak eta plazan jartzen ziren, baina denborarekin antzerkikira joateko ohitura galduz joan zen", azaldu du Juan Manuel Herrero Tarima Beltzako kideak. Hortaz, Iortia kultur gunea beharrezkoa zen.

Diziplina guztiak

Antzerkia, dantza, musika, arte plastikoen erakusketak, hitzaldiak, liburuen aurkezpenak, baita zinema ere. Iortiarenekin aretoek kultur diziplina guztiak hartzen ditu. Areto nagusiak 300 bat pertsonendako eserlekuak ditu eta 168 metro koadroko agertokia. Areto txikiak 100 bat pertsonendako tokia eskaintzen du. "Eztabaida txiki bat sortu zen ea zenbat pertsonendako lekua egon beharko zen baita eszenatokiaren tamaina erabakitzeke ere", adierazi du Josu Rubiok Haize Berriak musika bandako kideak. Ehun pertsonendako nahikoa zela esaten zuten batzuk, baina hamabost

urte ondoren datuek kontrakoa esaten dute.

Arte eszenikoko 760 zuzeneko ikuskizun izan dira hamabost urte hauetan Iortia eszenatikietan eta 166.970 sarrera saldu dira. Ikusleen igoera progresiboa izan da: lehenengo urtean 5.600 sarrera inguru saldu ziren, eta 2013. urtetik aurrera 13.000 sarrera baino gehiago saltzen dira urtero. "Hasieran 20 pertsona joaten ziren ikuskizunetara, baina denborarekin ohitura sortzen joan da", azaldu du Herrerok.

Eskaintza ere progresiboki handitu da, hortaz, lehenengo urtean 33 ikuskizun antolatuta zituzten eta gaur egun 66 ikuskizun antolatzen dira urtean; bataz beste 50 bat ikuskizun izaten dira.

Askotarikoak izan dira antzerki, musika eta dantza ikuskizunak. 760 ikuskizun baino gehiago ikusteko aukera egon da, eta haietatik 420 ikuskizun talde profesionalen eskaintakoak izan dira. "Esango nuke arrakasta gehien izan duena Iortiarenekin historian *El cocidito madrileño* izan zela, hiru pase egin genituen, baina gehiago egon dira", azal-



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

du du Betisa Andak. Emanaldien okupazioa, batz bestea, %70koa da.

Emakumezkoen artean kontsumoa altuagoa da: "Hainbat ikerketek diote emakumeek kultur ekoizpen gehiago kontsumitzen dutela, eta guk ikusten dugunaren arabera kontrastatu dezakegu", dio Andak.

Kultur eragileak

Talde amateurren eszenatokia da Iortia. Hortaz, Sakanako eta Altsasuko musika, antzerki eta dantza taldeek aurkitu dute bere publikoa: Trasteando, Erkudengo Ama Abesbatza, Haize Berriak banda, Burundar txistulariak, Los del Rayo, Etxarri Aranazko abesbatza, Etorkizuna dantza taldea eta abarrek emanaldiak eskaini dituzte kultur guneko agertokian. "Azpimarratuko dudana da Iortiarren itzalean talde batzuk jaio direla: Tarima Beltza antzerki taldea, kasu", azaldu du Andak.

Herriak behar zuen Iortia kultur gunea bezalako kultura eskaintzeko toki bat, Sakanako taldeek adierazi dutenaren arabera. Hortaz, talde batzuen jarduna posiblea izan da Iortiarren esker. "Beste hainbat tokietan jotzen dugu guk ere, Aita Barandiaran zahar etxean eta Josefina klinikan, besteak beste, baina Iortia lorpen handia izan da. Promoziorako eta erakusketarako elementua izan da", azaldu du Kruz Mari Larreak, Trasteando taldeko kideak.

"Iortia eraiki aurretik elizan egin behar genituen emanaldiak, eta arazoak izaten genituen. Iortia ezinbestekoa izan da guretzako", esan du Josu Rubio Haize Berriak musika bandako kideak. Ikuskizunak sortzeko "askatasuna" ematen die Iortiak, Luis Orduña bandako zuzendaria azaldu duenez.

Zortea aipatzen dute hainbat taldek ere: "Ikuskizunak egiteko zorte ona izan dugu holako toki bat izatearekin. Instalazioak primerakoak dira", aipatu du Erkudengo Ama Abesbatzak.

Tarima Beltzaren kasua berezia da, izan ere, Iortia kultur guneari esker sortu zen. "Iortia kultur gunean sortu zenean antzerki tailerra antolatatu zuten, eta handik sortu zen Tarima Beltza", adierazi du Tarima Beltza antzerki taldeko kideek. "Luxu" bat da Iortia bezalako eszenatoki bat izatea antzerki-

gileen ustez. "Kanpora ateratzen garenean konturatzen gara hemen dugunaz. Kanpotik etortitakoek ere esaten digute oso leku ona dugula".

Etorkizuna dantza taldeari gauzak "erraztu" dizkio Iortia kultur gunek, gainera, dantzariendako "motibazio" bat da, adierazi du Iñaki Agirre dantza taldeko irakasleak. Dantzarima dantza konpainiako kideek ere haien "arteak erakusteko" toki aurkitu dute Iortian.

Kultur eskaintza

Altsasuko eta Sakanako talde amateurrek 220 emanaldi baino gehiago eskaini dituzte Iortian, eskaintzaren % 40a, eta bertara 55.238 lagun joan dira, ikuslegoaren % 34a. Antzerkia eta musika dira emanaldi gehien izan dituzte diziplinak, eta dantza emanaldiek presentzia gutxiago dute. Publiko aldetik ez dago alde handia: "eskaintza definitzeko hainbat baldintza hartzen dira kontuan, printzipioz diziplinen arteko oreka zaintzen dugu, ikuskizunaren kalitatea eta adin taldea kontuan hartu behar dugu ere", azaldu du Andak.

Euskarazko produkzioek kontsumo txikiagoa dute. "Publiko gutxiagori heltzen dira diziplina guztietan". Nabarmenena "familiei zuzendutako" ekoizpenak dira, bai zineman baita arte eszenikoetan ere. Hala ere, Iortia eskaintza egiteko orduan ahalegina "antzekoa" da, "kontua da ikusleko gutxiago dagoela".

Artea

Iortia kultur gunek filmak proiektatzeko bi pantaila ditu. 80 filma eskaintzen dira urtean. Gaurkotasuneko pelikula, familiartekoa eta autore zinemako filmak eskaintzen dira. "Zinema eskaintza bere horretan mantentzen da hasieratik. Aldatu dena eskaria da, irisgarritasuna lortzeko ikuslegoaren behar berrietara moldatu gara". Hortaz, emanaldien ordutegiak aldatu zituzten: "gero eta europarragoak gara eta etxera lehena iritsi nahi dugu". Beraz, ordutegiak aurreratu zituzten eta eskaintza berria sortu 19:00etan.

Zinemara joateko ohitura sortu da ere. Igandeko saioak hartzen du jende gehien: ikusleen % 57a. % 22a ikuslearen egunean

Kultura sortzaileak



FERNANDO MORENO

Dantzarima konpainia

"Iortia kultur gunea gure arteak erakusteko leku egokia da, hau da, gure dantzak plazaratzeko aukera eman digu. Baliabide teknikoak primerakoak dira eta gure ikuskizunetarako aproposak. Aukera polita izan da guretzako".



ARTXIBOA

Haize Berriak banda

"Iortia itsasportu bat bezala ikusten dugu. Helmuga bat da. Eta behin itsasportura iristen garela, beste kai batzuetara joan gaitzake. Lehen elizan egiten genituen kontzertuak, baina ez ginen apaizarekin ongi konpontzen".



UTZITAKOIA

Erkudengo Ama Abesbatza

"Zorte ona izan dugu halako toki on bat izatearekin. Ikuskizunak egiteko espazio asko gustatzen zaigu: agertokia, argiak, soina... oso ongi dago. Existituko ez balitz beste leku batzuk bilatuko genituzke, baina ez dira hain aproposak".



ARTXIBOA

Tarima Beltza antzerki taldea

"Iortia kultur gunea existituko ez balitz antzerki taldea ez zen existituko. Luxu bat da eta oso ongi egina dago. Eszenatokia, kamerinoak... Horrelako zerbait behar genuen. Kanpora ateratzen garenean konturatzen gara hemen dugunaz".



UTZITAKOIA

Etorkizuna dantza taldea

"Aurrerapen handia izan da. Kalean eta frontoian emanaldiak egiten ditugu ere, baina ez da berdina. Gauzak erraztu dizkigu: ez ditugu gauzak lekualdatu behar. Gainera, ikusleendako ere askoz erosoagoa da zutik edo frontoian egon beharrean".



ARTXIBOA

Trasteando musika taldea

"Herriarendako izugarriko ekarpena izan da. Kultura sortzeko eta kontsumitzeko aukera eman du. Oso pozik gaude. Hainbat lekutan jotzen dugu, baina urtean bitan Iortian kontzertua egiten dugu. Promoziorako balio digu ere".

joaten da, ostegunean, eta %21a ostiralean joaten da "pixkanaka pisua galtzen ari da".

Gaurkotasuneko pelikula "ahal bezain pronto" ekartzen saiatzen dira eta autore pelikuletan sariei erreparatzen diete. Hamabost urtetan 760 pelikula eskaini dituzte, eta 176.458 sarrerara saldu dira. 2017. urtea zinemaren urte "onena" izan da, 14.374 ikusleekin. Batz bestea, 250 bono zinema saltzen dira, "programazioan oinarritutako publiko leiala duela berresten duena".

Hamabi erakusketa izan ohi dira batz bestea urtean kultur guneko erakusketa aretoan. 235 metro koadroko espazio diafanoa da, irekia, arte erakusketak egiteko aproposa. Hamabost urtetan 166 erakusketa izan dira eta 106.000 bisitari izan dituzte.

832 hitzaldi edo aurkezpen antolatuta dira, gainera, Iortia kultur gunean eta 41.500 parte-hartzaile bertaratuta dira ekimen horietara. Batz bestea urtero 55 bat hitzaldi edo aurkezpen antolatzen dira.

Liburutegia

1934. urtean sortu zen Altsasuko liburutegia, eta, hainbat lekutan egon ondoren, Labaderotik Iortia leku aldatu zen, duela hamabost urte azken aldia. Iortia kultur gunean, eraikinaren barruan, liburutegirako espazio bat aurreikusi zuten. 680 metro koadro dituen liburutegia eta espazio zabala eta argitsua da. Bi solairu ditu eta hamaika zerbitzu eta aukera eskaintzen ditu: irakurketa eta ikasketa gelak, dokumentuen mailegua, fotokopiagailuan, ordenagailuak in-

terneteko sarrerarekin, eta irakurketa bultzatzeko jarduerak, besteak beste. Egutero 210 bat pertsona pasatzen dira liburutegitik, eta 2,65 mailegu egiten dira.

Liburutegiak antolatuta eta irakurketa bultzatzeko helburuarekin 30 ekimen antolatzen dira urtero, batz bestea: literatura irakurketa taldeak, ipuin kontalariak haurrentzako, idazle eta egileekin topaketak, baita apirilaren liburuaren egunaren harira liburuaren astea ospatzen da, hainbat ekimenekin.

Iortia kultur guneko hamabost urte hauetan izandako erabiltzaile guztiak kontuan hartuta, hau da, Iortian egindako emanaldiak eta liburutegiko erabiltzaileak, kultur gunetik 1.300.000 pertsona baino gehiago pasa dira.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Parisko Maiatz hura

Sakanatik Urbasa gainean Maiatz enborrak ikusten ditugun bezalaxe ikus dezakegu, txiki eta urrun baina esanahi handiko, 68ko maiatz hura.

Parisko unibertsitateetan abiaburua eduki zuen maiatz historiko hark nonbait ez zuen botere politikoa lortzea xede. Ez zuen lortu, bistan da, eta are gehiago, De Gaulle kontserbadorea indartu zen agintean, hilurren bazegoen ere. Baina gazte batzuek eragin zuten astinaldi sutuak arrasto sakona utzi du gaur egun arte ere.

Ezinezona nabarmentzen zen mundu osoan barrena: Kalifornia, Alemania, Praga, Mexiko DF... AEBetan Malcolm X, Luher King, Angela Davis edota Classius Clay gogor zebiltzan eskubide zibilen alde. Che Guevararen jarduna bizi-bizi, Vietnamgo guduaren aurkako mugimendua indartsu eta eraginkor zetorren.

Eta halatan Parisko maiatza etorri zen, filosofo eta pentsalari kritikoa zirikatzailer eta gazteak gidari eta arizale, harlauzak hegan eta karririkak gori-gori. Izatez eta berez,

MAIATZ HISTORIKO HARK NONBAIT EZ ZUEN BOTERE POLITIKOA LORTZEA XEDE

kronologikoki labur-laburra suertatu zen iraultza hura, hilabete gutxitan Parisko kaleak bake osoan zeuden, eta Frantziako langileen egoera hobetu zen itun batzuen bidez. Matxinada gori hark ekarri zuenak, ordea, hamarkadetan arrasto sakona

utzi du. Gazteen haserrea ("Gazte gara gazte eta gaude konforme" gurean) eta protagonismoa gizartearen lehen lerroa etorri zen, eta zenbait goi asmok leku nabarmena hartu zuten geroztik, hala nola, antimilitarismoa, askapen sexuala, ekologismoa, feminismoa edo internazionalismoa. Euskal Herrian urte batzuk geroago irratir libreak, gazte asanbladak, fanzineak, intsumisioa eta gaztetxeak mamitu ziren 68koaren uzta berantiar gisara.

Urbasa gaineko Meyetzak bezala, urrun eta txiki... Guri beti begira, ordea. Zaindari eta eragile ote?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoko: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Benzodiazepinaren kontsumoa gure munduko isla da

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Botiken kontsumoari buruz iritsi zaigun azken ikerketak dio Estatu Batuetan opiazioen kontsumoa gehiegizkoa den bezala European benzodiazepina dela gehien kontsumitzen dien botika.

Bere eraginak lasaigarriak eta hipnotikoak dira batez ere. Mundu mailan gehien kontsumitzen den botika dira benzodiazepinak (batez ere lehen munduan), antibiotiko, analgesiko eta baita antinflamatorioen aurretik. Estatu espainiarra Europako batez bestekoaren gainetik dago halako kontsumoetan.

Gaur egun ez da bakarrik helduen artean kontsumitzen,

baizik eta gazteen artean ere. Azterketetarako tentsioak kentzeko kontsumitzen dira halako botikak, ziuraski erantzun honek badu zer ikusirik helduok egiten dugunarekin, azken finean ereduak gara.

Non dago koska historia honetan? Bi gauza daude: alde batetik, denbora luzerako adizioak sortzen direla eta denbora asko eramaten baduzu halako botika hartzen, ez dela erraza uztea. Batzuetan medikuek arazo hauei aurre egiteko ez dute gehiago eskaintzeko, eta azkenean tratamenduak luzatzen dira, honek dakarren ondorioekin.

Beste aldetik, egungo gizarte

mina jasatea ez da lehenengo gizarte bezala indartsu izatearen seinalea, oraingoan dena pastilla batekin konpondu daitekeenaren sinesmena dago, eta gainera frustrazioaren aurreko tolerantzia oso txikia da. Honi gehitu behar zaio farmazia industria itzelaren eragina. Hoberena litzateke pertsonarekin lan egitea berak izan ahal izateko trebe arazoei aurre egiteko eta ez pastilla baten menpe egoteko, beti.

Ikerketan emozioen patologizazioari buruz ere hitz egiten da. Normala da antsietate puntu bat izatea zenbait egoeren aurrean, azterketa batekin adibidez. Lana dago emozio hauek kudeatzen jakitean. Maite dugun norbait hiltzen bada ezin dugu tristura ukatu pastillak hartuz, duelua pasatu egin behar da, ez ekidin, hori ez baita konponbidea.

GUTUNA

Burujabe hobe, lanerako prest bazaude

GORKA OVEJERO GANBOA (AHT GELDITU! ELKARLANA)

Burujabe hobe, hobeki aske, dudarik gabe. Nork ez du askatasuna amets, libre izatea helburu. Baina ameskeria hauen gainetik, nor bere buruaren jabe izatea, nor bere bizitzaren jabe eta arduradun egitea, lan eta neke asko ekartzen du eta guztiak ez gaude horretarako prest. Jendeak askotan, gehiegitan, beste pertsona eta erakundetan delegatzen ditu ardurak: gurasoak, bikotea, eskola,

udala, medikua, gobernua, eliza... Errazagoa baita beste batzuek erabakiak hartzea eta ados ez gaudenean erabaki horiek tabernetan edota sare sozialetan kritikatzeko.

Onartuko dugu baina, gaur egungo sistemak jarrera hauek sustatu eta bideratzen dituela eta hauei aurre egitea egundoko lana eta esfortzua eskatzen duela.

Ama lurraren defentsan gabiltzanok ongi aski dakigu arestian botatako hauen guztien egi gordina. Edozein

azpiegitura txikitzaile eta kutsakor egiteko legedi malguak dauzkagu -AHT, errauskailuak, Fracking, autopista elektrikoak...-, politikariak eraikuntza enpresa eta multinazionalen morroi otzanak dira beren urrezko jubilazioa ate birakarietan pausatuz eta jendarteak, oro har, axolagabekeria harrigarri batekin bizi dituz bere inguruko gorabehera hauek guztiak.

Batzuek, ordea, erabakia hartuta dugu, Sakanan osasunez eta duintasunez bizi eta lan egin nahi dugu, burujabe, honek duzposatuko digun lanari eta denborari beldurrik hartu gabe.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Aurtengo sentsibilizazio kanpainan ikastetxetako ordezkariak izan ziren.

Kulturartekotasunaren balioak ikastetxetik plazara zabaltzen

Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak ikastetxeetan eta festetan sentsibilizatzeko kanpaina eginen ditu

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua 3 urteko ikasleekin sentsibilizazio kanpaina lantzen hasi zen pasa den urtean. Kanpaina hori ikasleei opari bat ematean datza. Baina, bide batez, gurasoek ere jasotzen dute euren. Eta aurtengo zurrumurruak dira protagonista. "Ikusten dugulako haren atzean estereotipoak eta aurreiritziak daudela", azaldu du Bego Zestau Baraibar teknikariak. Ikasleek arbeltxo bat opari jasoko dute, zerbitzuak sustatzen dituen balioen berri ematen duen irudia eta *Zurrumurrurik gabeko Sakanan* marrazten leloa duena. "Hau badakigu 3 urteko ikasleak ez duela jaso behar, berea marraztea da. Baina, bide batez, gurasoei lelo bera duen liburuxka bat banatuko zaie". Helburua da hau jasotakoan txikiak eta

handiak batzea eta etxean aniztasuna pixka bat lantzea".

Bestalde, Anitzartean zerbitzuak bere mezua zabaltzeko beste baliabide bat sortu du: kooperazio-partxis, ez lehiakorra. Joko-sistema bera da baina arau batzuk aldatzen dira. "Jokoaren bidez baloreak lantzeko denez, jokalarari baten fitxa beste batekin elkartzen denean, jan ordez, batu egiten dira eta biek gehitzen dute. Jokoaren akaberan barrura iristean beste mezu bat opartuko du jokalarariak erdian: baloreen batura, zurrumurruren haustura.

Lau balioak

Errespetua, berdintasuna, aniztasuna eta diskriminaziorik eza.

Zurrumurruek? "Elkarbizitzarako kalte"

Anitzartean zerbitzuak zurrumurruren kontrako estrategia abiatu du: "kezkatuta gaude zurrumurruek elkarbizitzan duten eragin ezkorrekin. Estereotipo eta aurreiritzi horiek desmuntatzen saiatzen" zerbitzuak 10 urte darama

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak Nafarroako beste hainbat gizarte eragilerekin, banakakoekin eta erakunderekin batera indarrak batu zituzten eta duela bi urte eta Zurrumurruren Kontrako Nafarroako Sarea, *Zaska*, sortu zuten. 30 bat talde daude. Zurrumurruek de-segin nahi dituzte "elkarbizitzan baikorki eraginen duen diskurtsoa zabalduz".

Zaskakoak orain arte zurrumurruren kontrako agente izateko jendea trebatzen aritu dira. Sareko kideak ere trebatu dira, beste pertsonak eta taldeak prestatu ahal izateko. Sarean egoteak eta elkarlana izateak ekarri zuen zurrumurruren kontrako agenteak sortzeko kanpaina egitea Sakanan udazkenean. Nafarroako Bego Zestau Baraibar teknikariak azaldu zuenez, "hainbat herritako jendearekin Sakanan bi eztabaida talde sortu ziren, bologo zebiltzan zurrumurruek detektatzeko". Zestauk argitu zuenez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Gizarte Laneko saileko hiru profesional eztabaida talde horiek dinamizatzeraz etorri ziren. Eta handik ateratako zurrumurruren inguruko ondorioak atera zituzten.



Zurrumurruek detektatzen ikastaroa egin zen udazkenean, orain liburuxka atera da.

Radarra

Zurrumurruek detektatzeko erreminta sortu zutela jakinarazi zuen. "Horren helburua da entzun dugun zurrumurrua NUPekoei bidaltzea. Haiek 6 hilabeteko ikerketa egiten dute, jakiteko zurrumurrurak mantentzen diren edo ez. Hori jakinarazten digute eta guk aurre egiteko estrategiaren bat lantzeko edo prestatzeko aukera dugu".

Sakanan, Nafarroan eta estatuan hiru zurrumurrurik "bixibixi" zebiltzala ikusi zuten: etorkinek diru-laguntza guztiak

eramaten dituzte; etorkinek soldatak jaisten dituzte eta etorkinak lana kentzera datoz. "Zer pasatzen da zurrumurruekin? Pertsona batek edo talde batek botatzen duen ideia bat dira, inongo errealitatean oinarrituta ez dagoena, baina egi bezala hartzen dena". Teknikariak gaztigatu zuenez, "oso barruan sartutako sinismen bat da, aldatzen oso zaila dena. Baina horrek ez du esan nahi ekin behar ez diogunik, Sakanan elkarbizitza ahalik eta baikorrena izatea nahi dugulako".

Esataria: Eneida Gaurko gaiak:

- Iñigo Goikoetxearekin Gozategiren disko berriaz
- Martin Larrazarekin selektibitatearen antolaketaz
- Jubiloteka zerbitzuaren aurkezpena

Ostiralero 9:30ean
SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



107.3 FM
beixe
guaxe.eus-en ON LINE

50
—
%80
—
10

Guaixe fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 50 euro ordaindu eta 40 euro
berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean.
2017ko ziurtagiria eskatu:
admin@guaixe.eus edo 948 564 275,
Foru plaza 23, 1. solairua. (Altsasu)



Jubiloteka, zahartze aktiboa izateko

ALODIA ALVARO GIZARTE HEZITZAILEA ETA **JAVIER PAZ** BURUNDA MANK. BURUA
Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bere zerbitzu zorroa zabaltzen darrai: 2017an txakurrekin terapia eta aurten jubiloteka

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Zer da jubiloteka bat?

A. Behar bat, hutsune bat betetzeko zerbitzu bat da, 3. adinekoei zuzendutako zerbitzua. Adinekoak elkartu eta zahartze aktiboaren ildotik aktibitatea sortzea du helburu. Pertsona horien isolamendua ekidin nahi dugu. **Sumatzen duzue zahartze aktiborik ez dagoela eta adinduak isolatuta daudela?**

A. Gure eremuan 65 urtetik gorakoendako ditugun baliabideak dira: Aita Barandiaran egoitza eta Josefina Arregi klinikaren eguneko zentroa. Behar bereziak dituzten 3. adineko pertsonendako zentroak dira. Jubilatu elkarteek eta udalek ekintza batzuk egiten dituzte baina haieran ez dute pertsona guztiek parte hartzen. Ziordiko kasuan, jubilatutako elkarerik ez dagoenez, ekintza oso urriak dira. Guk hutsune hori bete eta aukera eman nahi diegu haien neurri- prestaturako ekintzetan parte hartzeko. Ez da berdin jubilatuei zuzendutako gimnasia edo kiroldegikoa. Ekintza egokituak dira. Eta uste dugu hutsune bat dagoela. Egia da zaintzaileak ere kontutan izan ditugula. Gehien bat emakumeak dira zaintzaile lanak egiten dituztenak. Haiek arnasa hartzeko eta haiendako denbora pixka bat izan dezaten sortu da zerbitzua berria.

Jubilotekara joaten denak zer opatuko du?

J. Hainbat, esaterako: oroimena, gimnasia arina, eskulanak... Eskararen arabera ekintzak egiteko aukera izan daiteke. Parte-hartzaileen behar edo nahiak zein diren ikusiko dira eta horren arabera egokituko dira ekintzak.

Erabiltzaile posibleen edo familien kezka jasoa zenuten?

A. Zaintzaileen aldetik bai zerbitzuaren beharra jaso da. Askok esaten dizute: adinduendako



Alodia eta Javier. Burunda mendebaldean 65 urtetik gorako pertsonak % 20,1 dira.

ludoteka behar da. Edo eguneko zentro bat, baina ez Josefina Arregi bezalakoa. Eskaera egon da. Baina gero eta bakarrago dagoen jendea ikusten duzu, jendearekin erlaziozaten ez dena, edo etxean gelditzen dena. Biak dira, eskaerak eta hausnarketa.

Jubilotekara joaten direnak begirale, teknikari edo dinamizatzaile batekin egonen dira?

J. Bai, haiekin pertsona bat izanen da. Enpresa batek kudeatu du zerbitzua. Haren eta mankomunitatearen artean elkarlana egonen da.

Non eman behar dute izena?

A. Eskaera orria bete eta errenta aitortpena pasa behar digu, tasa kalkulatzeko. Ordaindu beharrekota errenta aitortpenaren araberkota izanen delako. Gutxieneko ordainketa euro batekoa da eta gehiena 48. Eskaerarekin onartuak izanen dira.

Non izanen dira? Noiz?

J. Asmoa da heldu den astean hastea eta azarora arte luzatzea. Oporrak direla eta, agorrilean ez da zerbitzurik izanen. Hiru talde izanen dira, herriko bana. Gutxienez 4 pertsona behar dira taldea osatzeko. Gehienez, 15.

Gerta daiteke, taldea jende gutxiarekin hastea eta aurrera egin ahala taldekideen kopurua handitzea.

A. Altsasun astelehenetan eta asteazkenetan izanen da, 11:30etik 13:30era, Batasuna jubilatutako elkarteetan eta ostegunetan, 10:00etatik 12:00etara, Kamiogaina jubilatutako elkarteetan. Eta Ziordian, asteartean eta ostegunetan, 12:15etik 14:15era, gimnasioan. Hala eskatu digutelako, Ziordiko kasuan, hala eskatu digutelako, irailtik aurrera saiatuko ginatete arratsalde izatea. Taldea sortzen denean denen artean erabakiko da aldaketa hori egitea egokia den.

Zergatik joan beharko lukete?

J. Lehen esandakoa. Gure herrietan hutsune bat zegoela ikusi dugu eta hori bete nahi dugu. Haiendako osasuntsua izanen dela espero dugu.

A. Ongi pasa dezaketelako. Batzuetan eguna luzea egiten zaigu. Jende berria ezagutu dezakete. Barre egin. Probatzeko. **Udalen beste zerbitzuekin edo osasun etxearekin harremanetan izanen zarete jubiloteka aurrera eramateko?**

A. Udalak jakinarene gainean daude. Osasun etxearekin, jubilatutako elkarteekin eta adineko pertsonekin elkarlanean ari gara.

Zerbitzua urte guztira zabaltzeko asmoa legoke?

J. Abenduan balorazioa egingen dugu; nola izan den, zer hobetu daitekeen... Abenduan ondorioak aterako ditugu. Asmoa jarraitzea litzateke. Hau ongi egin nahi dugu. Uste dugu bideragarria dela. Gure adinduendako oso alternatiba polita da.

Beste nonbaiteko halako esperientziak ezagutzen dituzue?

J. Nafarroan toki askotan egiten da. Oso emaitza onak izan dituzte.

A. Hau udalen ekimena da. Oraingoz Nafarroako Gobernuak ez du bere gain hartu halako ekimenik.

Eta jendeak probatu nahiko balu, non eman beharko luke izena?

A. Mankomunitatearen egoitzan, Altsasuko Garbitoki eraikinean edo hara telefonoz hots eginez: 948 467 662 zenbakira. Bestela hiru udaletxeetan eta bi jubilatutako elkarteetan eman daiteke izena.

+ 65 urtekoak

- Altsasun % 19,1.
- Olatzagutian % 23,4.
- Ziordian % 27,4.

Zerbitzu zorroa zabaltzen

Mankomunitateak eta Biak Bat elkarteak hitzarmena sinatu zuten 2017ko martxoan. Haren bidez, behar bereziak dituzten zazpi haurrekin txakurrekin lagundutako terapia saioetan parte hartzen dute. Errentaren araberrako ordainketa egin dute eta erakundea besteaz arduratzen da. Pazek esan digunez, "hitzarmena berri dugu, oso egokia delako. Emaitza ona eman du eta jarraipena ematea eta zerbitzua finkatzen saiatu gara. Aurten helduendako zabaldu dugu". Bi heldu hasi dira terapian. Biak Baten egoitzan egiten dira saioak.

Pazek azaldu digunez, terapia saioak nori komeni zaizkion jakiteko mankomunitatea ikastetxeekin eta osasun etxearekin elkarlanean ari da. "Erabiltzaile profilak definitzen dituzte, behar bereziak ikustean gonbidapena egiten zaie eta profesionalen balorazio baten ondoren programan onartzen dituzte edo ez".

LIKIDAZIOA!
LEKU ALDAKETARENGATIK

EKAINAREN 4TIK AURRERA

JOSELEN

HAUR ETA EMAKUME MODA

Alzania, 3 • 948 56 21 91 • ALTSASU



Lan hitzarmenen estatalizazioak dakarren berzentralizazioa salatzen LABek.

Hitzarmenen estatalizazioaren kontra egin du LABek

Negoiazio kolektiboan duen eragina salatzen duen orduko lanuzteak eta mobilizazioak deitu zituen

SAKANA

Herenegun egindako protestekin LAB sindikatuak lan harremanetan emandako zentralizazioa salatzen nahi izan zuen. Sakanako arduradun Gaizka Uhartek esan zigunez, "estatuko lan hitzarmenek gero eta eragin handiagoa dute gure lan harremanetan. Bai arlo pribatuan bai publikoan". Azken horretan, "zorpetzeko mugarekin eta 135. artikulua ezarpenarekin ere estatalizazioa ematen da. Gaur egun, soldata igotzeko edo enplegu publikoko lanpostu berrien deialdiak egiteko mugak ditugu. Erabaki ahalmen hori ere lapurtu digute". Gaineratu zuenez, "Euskal Herrian erabakitzeke gero eta ahalmen gutxiago dugu. Zailagoa da gure lan-harreman eredu eraikitzea".

Estatizazioa "krisiaren ondorio" dela gaztigitu zuen Uhartek. "Lan erreformek estatuko hitzarmenei gero eta indar gehiago eman diete eta negoziatzio esparrua enpresetara eraman du". Horren ondorioa da "lurralde-hitzarmenek eragiteko zuten gaitasuna galtzen ari gara". Uhartek Nafarroako metalgintzako hitzarmenaren adibidea eman zuen: "indarrean jarri beharreko gutxienekoa da, baina ez ditu materia batzuk jasotzen. Horiek estatuan negoziatzeko erreserbatzen dituzte eta estatuko hitzarmena dagoenez, gero eta gutxiago negoziatzen dugu hemen". Lan erreformaren bidez enpresei akordioak ez betetzeko aukera eman zieten.

"Hala, estatuko eta maila baxuagoko lan-hitzarmenak indarrean jartzen ari dira enpresak". Eta aitortu zuen "normalean hemen negoziatzen dena hobea" dela, "indar korrelazioa eta hemengo bizi baldintzak beste batzuk direrako".

Sakanan eragina

Aipatutako metalgintzakoaz aparte, ibarrean estatalizazioak kolektibitateen (jangelak) edo kimiken lan hitzarmenei eragiten diela azaldu zion Uhartek. "Badira enpresa txikiak zeinetan jendea antolatua ez dagoen eta estatu-hitzarmenak ezartzen dietena".

Estatizazioari buelta emateko patronalaren, sindikatuen eta gobernuaren arteko Nafarroako akordioa sinatzea proposatu du LABek, herrialdekoa izatea gutxienekoa eta inork hori ez uztea estatuko ez hartzeko. UGT, CCOO eta patronalari egin zion proposamena LABek eta "ez zuten ongi ikusi. Sindikatu horiek nahiago dute estatuan negoziatzea, gaitasun handiagoa dutelako". LABek "akordio inter-profesionala lortu nahi du" eta, esparru bakoitzean, lan-harremanak hemen borrokatzea. Guretako sektoreetako Nafarroako hitzarmenak lortzea garrantzitsua da. Eta lortuko ez balitz, enpresetan ahalera bera egin beharko genuke". Administrazioan dagoen "egoera larria" dela gaztigitu zuen: "ezin dira plaza berrien deialdirik egin, soldata ezin da %1etik igo..."



Sakanako industrialde bat. ARTXIBOA

Sakandarrak ogasunaren zordun handien artean

Industriako 4, ostalaritzako 3, eraikuntzako 2 eta merkataritzako 1 dira

SAKANA

Nafarroako Zerga Ogasunak zordun nagusien zerrenda argitaratu zuen asteartean. Nafarroari 270,7 milioi euro zor dioten 580 pertsona fisiko eta juridikoak dira eta gehienek zorrak BEZaren edo atxikipenen ordainketekin lotura du. Zerrenda horretan 120.000 eurotik gorako zorra pilatu dutenak sartu dituzte.

Ogasunak jakinarazi duenez, Sakanako 10 zordun handietatik lau industria arlokoak dira: Arfe Cajeros Automaticos SL (443.349,12 euro), Montajes Ibarrea (195.854,25), Pavimentos Olaeder SA (176.751,30) eta Triman Minerals SAU (194.410,62). Aurreneko hiruak krisiarekin itxi ziren. Ostalaritza arloko hiru zordun daude: Camping Bioitza SL (245.461,59), Lezea Zufiurre (155.100,22) eta Urbasa-Bioitza SL (543.438,91). Krisiak gogor eragin dion eraikuntza sektoreko bi enpresa ere ageri dira: Bargagain SL (515.061,03) eta BioHaus Goierri (390.323,27). Azkenik, merkataritza arloko Agricola Sakana SL dago (133.469,10). Nafarroako Zerga Ogasunaren datuen arabera ibarreko 10 zordunen artean 2.993.219,41 euroko zorra pilatzen dute, herrialdekoaren % 1,1.

Elikagai Bankuak jakien bilketa eginen du gaur eta bihar

Nafarroako Elikagai Bankuko boluntarioak jatekoen bilketa handian lanean ariko dira gaur eta bihar. Bi egun horietan biltzen dena ekonomikoki okerren dauden 7.000 familia baino gehiagoren artean banatuko dute hurrengo hilabeteetan. Hau da, 32.000 nafarren artean. Horregatik, bilketa honetarako *gosea ezabatu* leloa aukeratu dute. Bilketa antolatu dutenek honako jakiak ematea eskatu dute: olio, arrain kontserbak, pasta egosia, lekale kontserbak, galletak eta kakao disolbagarria.

Ibarreko hainbat herrietan, ohikoa denez, dendetatik aparte bilketa puntuak zabalduko dira eta jatekoak hara eramatea eskatuko da. Altsasun, berriz, Eroskiren bi dendetan eta BMn eta Dian egongo dira boluntarioak. Bide batez, bilketan lagundu eta boluntario izateko deialdia egin dute. Izena emateko: www.bancoalimentosnavarra.org, granrecogidaban@gmail.com edo 636 693 617 telefonoa.

ERSISI proiektuaz Europako Gizarte Zerbitzuen Kongresuan

Gizarte Eskubideen Departamentuko ERSISI (Gizarteratze-ko eskubidea indartzea, zerbitzuen integrazioaren bitartez) proiektuaren koordinatzaile Loli Gutierrezek 26. Europako Gizarte Zerbitzuen Kongresuan parte hartu du, eta hainbat herrialdeetako ordezkariaren aurrean proiektuaren berri eman du.

Nafar Lansareren Altsasuko enplegu bulegoa eta Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bat egin dute. Enplegua lortzeko eta bestelako zailtasunak dituzten pertsonekin lan egiten ari dira eta proiektuaren helburua da pertsona horiei lan merkaturako sarbidea lortzeko erraztasunak ematea.

Nafarroako Gobernuak ERSISI proiektua Tuteran eta Sakana mendebaldean garatzen ari da, gizarte arloko ikerketa eta berrikuntza proiektu gisa. Europako Batasunaren laguntza du horretarako.



Trimaneko langileen protesta. LAB

Trimaneko langileen egoerak ez du hobera egin

Zuzendaritza ez zen kontziliazio ekitaldira agertu eta hartuko duen bidea argitzeko dago

ALTSASU

Triman Minerals SA enpresako langileek hiruzpalau hilabete daramate soldata kobratu gabe. Sodena enpresa publikoak Iruñean duen egoitzaren parean kontzentrazioa egin zuten astelehenean. Handik enpresari konponbidea eskatu zioten. Eta Nafarroako Gobernuari eta Sodeneri "enpresa proiektua bermatu ahal izateko ahal duen guztia egin dezatela" eskatu zieten, enpresarekin harremanetan izan baitira, nahiz eta egitasmoak aurrera ez egin.

Bitartean langileen ordezkariak eta zuzendaritzak kontziliazio hitzordua zuten jarrita. Baina enpresako ordezkariak ez ziren agertu. LAB sindikatutik azaldu digutenez, "halakoetan normalean agertzea da. Baina ez dira agertu, ez dute langileekiko zorra onartzen". Enpresako zuzendaritzak zein bide hartuko duen ere ez dakite. Zuzendaritzak jakinarazi zuen maiatzaren 9an Enplegu Erregulazio Espediente ezarriko zuela taldeko enpresa guztietan, baina lantegi guztien babesa aldarrikatu zuen eta ez zuen halakorik jaso. Langileek ez dakite espedientearekin aurrera eginen duen edo hartzekodunen konkurtsoa ezarriko den.

Euriteek kaltetutako en zerrendan 13 udal

Nafarroako Gobernuak apirilaren 6an eta 13an izan ziren euriteen eta uholdeen ondorioz kaltetutako 88 herrien zerrenda onartu du gaurko bilkuran. Haien artean Sakanako 13 herri daude: Arakil, Irañeta, Uhartea Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia.

Aldi berean, pertsona fisikoek eta juridikoek jaso ditzaketen zerga-salbuespenak onartu ditu. Eraikinak kalteku badira kontribuzioa ez da pagatu beharko ezta eraikuntza, azpiegitura eta lanen gaineko Ekonomia-Jardueren Zerga ere. Udalek horrekin diru sarrerak galtzen dituzte eta horiek Nafarroako Gobernuak ordainduko dizkie. Pertsona fisikoek edo juridikoek zerga salbuespenak udaletxean eska ditzakete, lastailaren 31ra arte. Neurria aseguru etxeen eta estatutik edo Europatik etor litezkeen osagarriak da, aseguratuta eta gabeko ondasunendako.

Olatzagutiko udalak inbentarioa egiteko laguntza jaso du

Olatzagutiko Udalak bere ondasun eta eskubideen udal inbentarioa egitea erabaki zuen eta horretarako diru-saila gorde zuen aurtengo aurrekontuan. Zehazki 4.135,78 euro bideratu zituen horretara udalak eta Nafarroako Gobernuak inbentarioa egiteko inbertsioaren erdia pagatuko du diru-laguntza baten bidez, 2.067,89 euro.

Arbizun bake epailerik eta ordezkorik gabe

Arbizuko Udalak jakinarazi duenez, bake epaile titularraren eta ordezkoren karguak hutsik daude eta betetzeko deialdi publikoa egin du. Beraz, herenegundik aurrera 15 egun balioduneko epea izanen da eskaerak udaletxeko bulegoan aurkezteko. Inork eskatzen ez badu, Osoko Bilkurak nahi dituenak hautatuko ditu.

Urdiaingo eta Altsasuko San Pedro ermita elizarena da

Teilatua egoera kaxkarrean dago eta ezer egin aurretik jabetza begiratu du Altsasuk

ALTSASU

San Pedro ospakizunerako hila bete baino gutxiago falta dela eta ospakizunean pentsatzen hasiak dira Burunda aldean. Herritar batek Altsasuko Udalarari jakinarazi zion ermitako teiladura oso gaizki zegoela eta konpontzeko premia zuela. Altsasuko Udalak ezer egin aurretik ermitaren jabetza norena zen jabetza-erregistroan galdetu zuen eta jakinarazi zioten 2000ko irailtik Iruñeko elizbarrutia-rena dela.

Altsasuko alkate Javier Olló Martínezek herenegungo bilkuran jakinarazi zuen Urdiaingo alkatearekin harremanetan jarriko dela, egoera elkarrekin aztertzeko, bi herriak baitira ermita erabiltzen dutenak. Litekeena da ermitaren egoeraren inguruko txostena egitea eta horren ondoren zer egin erabakitzea.

Bilkuran alderdi gehienek jabetza duen elizbarrutiak lanak bere gain hartu beharko lituzkeela azaldu zuten. Bestetik, beste ermiten jabetza zeinen esku dagoen berraztertuko du udalak. 1.647an berreraiki zen ermita. Teilatua konpondu zen azken aldia duela hiru hamarkada pasa izan zen.

Artzaintzari buruzko jardunaldia antolatu du Aralar Mendik

Aralar Mendi elkarteak argazki hitzaldia antolatu du biharko, 19:00etan: *Artzaintza tradizionaletik mendiko gaztara* izenburua du. Idiazabal jatorri izendapeneko kudeatzaile Mirian Molinak mendiko gazta zer den azalduko du. Ondoren dastatzea izanen da. Iñaki Vergararen argazki erakusketa 10era arte izanen da ikusgai.

Udalak 434.035 euroko inbertsioak onartu ditu

Basoko bideak konpontzea, udaletxeko igogailua eta komunak egokitzea eta teilatua konpontzea, lortia kultur guneko eta kiroldegiko argiteria berritzea, liburutegian bero-berreskuratzailea jartzea eta haur eskolako eguzki plakak martxan jartzea

ALTSASU

Hainbat arlotan 434.035,31 euroko inbertsioak egingen du Altsasuko Udalak. Horretarako sei aurrekontu aldaketa egitea erabaki zen. Haietako batek basoan 52.323,88 euroko inbertsioa egitea ekarriko du. Zehazki Gazteluberrri, Alzania, Balankaleku, Marmolazpi, Arbotones eta Eguberako pistak ongi jarriko dira. Udalaren diru-zaintzako geroz 28.059,88 euro aterako dira eta gainontzekoa Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin pagatuko da.

Udaletxean hiru lan egingen dira. Haietako bi arkitektura-oztopoak kentzeko izanen dira: igogailua jartzea eta komunak egokitzea. Lanok 183.708,3 euroko aurrekontua dute eta udalaren geroz 78.619,7 euro aterako dira lanak ordaintzeko. Gainontzekoa Gobernuaren Toki Azpiegitura Planaren bidez pagatuko da. Udaletxeko teilatua ere konponduko da 50.956,59 euroekin. Udalak lan horietarako 21.477,56 euro jarriko ditu eta aurrekontua foru administrazioaren diru-laguntzarekin beteko da.

Argiteria

Altsasuko Udalak erabaki du lortia kultur guneko egungo



Herenegungo bilkuran Bardeako tiro poligonoaren kontrako mozioa onartu zen.

argiteria kentzea eta haren ordezkari LED bidezkoa jartzea. Horrekin batera, liburutegian bero-berreskuratzaile bat jarriko da 57.500 euroekin. Udalaren gerozko poltsatik aterako da dirua. Energia eraginkortasuna hobetzeko beste neurri bat da Zelandi kiroldegiko argiteria LEDengatik ordezkatzeta. Inbertsioa 70.446,54 eurokoa izanen da eta udalak pagatuko du. Bi lan horietarako diru-laguntzak bilatuko ditu udalak. Haur eskolako eguzki plakak moldatu eta martxan jartzeko udalak 19.100 euro ja-

rriko ditu, diruzaintzako geroz 28.059,88 euro aterako dena.

Bestetik, Altsasuko Udalak erabaki zuen Nafarroako Gobernuari zera eskatzea: beharra duten udalendako udaltzain laguntzaile izangaien poltsa sor dezala. Hura sortu ondoren, premia duten udalek handik hutsik dituzten postuak betetzeko aukera lukete. Azkenik, Olatzagutiko Udalarekin akordioa sinatzea onartu zen. Horren bidez behar bereziak dituen altsasuar bat Olatzagutiko Udaneuskaraz kanpaina ariko da.

**Eguneko menua
Asteburuko
menu berezia
Pintxoak
Bokatak**

Berriz ere zuekin!

JUANITO
TABERNA-SAGARDOEGIA
948 460 404 Arbizu

PORTUKO *olindegia*

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763



2011ko eta 2013ko erreformak bertan behera uztea eskatu zuten.

Pentsio duinen aldarrikapenak ez du etenik izanen

Kontzentrazioak astelehenean, 11:00etan Etxarriko azokan eta, 19:30ean, Altsasuko udaletxe parean

SAKANA

Nafarroako Pentsionistak Martxanek, Otsailak 22ko plataformak eta Sasoiak deituta 700 pertsona elkartu ziren larunbatean. "Sistema aldatzea" aldarrikatu zuten, "governuek aberastasuna modu justuagoan bana dezaten, eta banaketa horretan pertsonak kontuan har ditzaten". Ziurtatu zuten, "egungo sistemak gure bizitzako arlo guztietan deuseztatzen gaitu". Pobrezia arriskuan dauden pertsonak eta pentsiodunak izan zituzten gogoan. "Azken horien % 52k 1.000 euro baino gutxiago jasotzen du eta haietako asko emakume alargunak dira" garrantzitsuak zuten. Horregatik nabarmendu zuten "benetako kaka egungo pentsioak dira, ez % 0,25eko igoera".

Sistema aldatzeko "gure ustez, aberastasuna modu justuagoan banatzeko aukera badago, dirua

badago". Horregatik, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta lanbideen arteko gutxieneko soldata 1.200 euro izatea exijitu zuten. Kotizatu ez dutenek pentsioa jasotzeko eskubiderik ez dutela diotenei erantzun zieten ere: "Hori onartuz gero, esku-bide hori ukatuko zaie euren bizitza familiarari eskaini dieten guztiei, hau da, amei, ahizpei, arabei, izebei..." Azaldu zuten, "emakumeak dira egoera tamalgarri hori gehien sufritzen dutenak, eta gizonok beraien alde egin behar dugu".

Pentsioen kutxa eta eltzetxu bakarra ere hizpide izan zituzten. "Pentsio sistema propioa aldarrikatzen dugulako insolidarioak izatea leporatzen digute". Galdetu zuten: "Esan daiteke PSOE, PP, CCOO, UGT, CEOE eta API-ME solidarioak izan zirela lan erreforma eta pentsioen erreforma 2011n sinatu zutenean?"



Izurdiagatik Ziordira arteko 8 geltokietan 300 bat pertsona elkartu ziren.

Geralekueetatik tren sozialaren aldeko aldarria

"Estatuan bulkatzen den tren bakarra AHT da, hirien artekoa. Landa-eremukook ezin dugu erabili"

SAKANA

Trenaren aldeko eguna izendatu zuten larunbatekoa. Tren sozialaren alde eta Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako mezuak zabaltu zituzten Nafarroako trenbide sarean dauden geltoki eta geralekueetan arratsaldeko tren erregionala pasatzen zen garaian.

Deitzaileek azaldu zuten, "trenak makina bat hamarkadatan hainbat eskualdeetako herrien arteko mugikortasun jasangarria izaten lagundu du Nafarroan, baita herrien eta hiriburuen artekoa ere. Horretarako, ibilbideko herriak lotzen zituen sare egonkorra zuen, zeinetan geralekuek eta geltokiek bermatzen zuten trenaren erabilera". Nafarroa zeharkatzen duen trenbide sarea 37 tren geltoki izatera iritsi zela azaldu zuten eta gaur egun 10 besterik ez dituela. Arrazoia ere eman

zuten: "biztanleria hirietan biltzeak (Nafarroako biztanleen ia erdia Iruñerrian bizi baita) eta auto pribatuaren ezarpen masiboak trenaren zerbitzu eta egiturak murriztea eta hondatzea ekarri zuten".

Protestaren antolatzaileen iritziz, "AHTaren inposizioa hil-hurren dagoen Nafarroako trenaren akabera litzateke, egitura erraldoia ezarri den lekuean gertatu den bezala". Eta nabarmendu zuten, "gero eta zailagoa da ohiko tren, garraio-bide eraginkor eta jasangarria dena, erabiltzea. Gure erkidegoko lurraldeak lotzeko, bai barrura begira, bai kanpora, trenak estrategia modernoaren aitzindaria izan behar luke, beste edozein garraio-bide baino energia gutxiago kontsumitzen baitu, eta, horregatik, klimaldaketaren ondorioak txikitzen laguntzen du".

Estrasburgon Altsasuko auziaren berri izan dute

Auziak Europako Parlamentuko Askatasuna, Justizia eta Barne gaiak Batzordean buka dezake

ALTSASU

Altsasuko Gurasoak taldearen ordezkari Bel Pozueta eta Edurne Goikoetxea Estrasburgon izan ziren astelehenean eta asteartean. Altsasuko auziaren berri eman zuten Berdeak/Europako Aliantza Askea, Europaren aldeko Liberalen eta Demokratien Aliantza eta Europako Ezker Batuaren Talde Konfederala taldeek antolatutako topaketa batean parte hartu zuten Europar Batasunean oinarritzako eskubideak defendatzen: "Espainiako kasua". Altsasuarrekin batera, Kataluniako preso politikoen senideak eta Valtonyc rap kantariaren babes taldeko kideek hartu zuten hitza.

Astearteko konferentzian eta aurreko prentsaurrekoan auziaren berri eman zuten. Astelehenean Europako Ezker Batuaren Talde Konfederaleko ordezkari-tza zabalarekin bilera izan zuten. Biek esan zuten: "badakigu epaia zigor-kondena bada eta zigor handiak badira auzibideak Estrasburgon bukatuko duela, eta han arrazoia emanen digute. Baina, ordurako, gure seme-alabak euren gazteria espetxean pasata izanen dute eta euren etorkizunerako konponezinak diren ondorioak izanen dira".



Amaya
Okindegi-gozotegia

Lantegia: Teileria Aldapa S/N
Altsasu
948 562 205

BM-supermerkatua

Araia (Araba)
945 314 572

Olazti
948 468 755

Etxarri-Aranatz
948 461 660

San Juan kalea, 50
Altsasu
670 389 017

Otadiako Kristo
Deuna Plaza, 19
Altsasu
948 562 185

Zumalakarregi Plaza
Altsasu
T: 948 468 026

Aurrekontuetako inbertsioak udaletxean

Bigarren solairua egokitu, ganboikoan artxiborako gela bat prestatu eta igogailua martxan jartzeko lanak eginen dituzte. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasoz gero hiru baso lan eta eskolan bi gela txiki eginen lituzke udalak

UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilgo Udalak aurten 1.026.923,94 euroko gastuak jaso ditu aurrekontuan. Sarrerak, berriz, 10.472,43 euro handiagoak izatea aurreikusi dute udalean. Inbertsioei dagokienez, Juana Sainz Betelu alkateak azaldu digunez, bi inbertsio nagusiak udaletxean eginen dira. "2005ean udaletxea berritu zen, eta orain bigarren solairua egokitu dugu, han liburutegia edo erabilera anitzeko aretoa jartzeko". Horrekin batera, ganboikoan udalaren artxiboaren zati bat hartzeko gela bat prestatuko dute ere. Udal bulegoetan artxiboaren beste zatirako beste espazio bat egokituta dute.

Lan horiek 84.000 euroko aurrekontua dute. Udalak 34.000 bideratuko ditu lan horietara eta, gainontzekoa, Cederna-Garalurren bidez lortutako Europako Landa-Garapenerako Programaren diru-laguntzaren bidez pagatuko du. Udaletxean eginen



Uharte Arakilgo udaletxea. ARTXIBOIA

den bigarren lana igogailua martxan jartzea izanen da. Lan batzuk eginak daude baina erabilgarri jartzeko 20.000 euroko inbertsioa eginen du udalak aurten. Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko

54.678,13 euroetatik aterako da diru hori. Baita zuntz optikoa jartzeko lanendako dirua ere. Zuntz optikoa udazkenerako herrian jarrita egotea espero du alkateak. Sainzek, bestetik, jakinarazi digu udalak bi sorosle kontratatuko dituela igerilekue-tarako. Itsesiko igerileku sasoi-a garagartzaroaren 8an hasi eta irailaren 8an despedituko da.

Bestetik, aurreko hiru urteetan udalak lan handiak egin ditu eskolan: jangela, patioa eta gela banaketa bat. Aurten udalak Hezkuntza Departamentuari diru-laguntza eskatu dio eta jasoz gero zuzendariarendako eta garbiketako tresnendako beste gela bat eginen luke.

Azkenik, hiru baso lan egiteko laguntza eskaera egin du: Aralar Elkartearen eta Lakuntzako udalerriko mugako itxiturak berritu eta, azkenik, azien-da bildu eta kamioietan sartzeko itxitura eginen luke Aralarren, La parrillan.

Ikastetxera Maiza kaletik joateko eskaera egin dute

San Donato eskola publikoko eta Andra Mari ikastolako Lehen Hezkuntzako hainbat ikasle etxarriar bizikletaz joaten dira egunero. Etxarri Aranazko Udaletik gaztigatu dute neska-mutilek klaserako bidea hartzerakoan kaleen norabideak errespetatzeko eta Maiza kaletik joateko eskatu die udalak (Xapatero taberna eta Estankoko kalea). Izan ere, zenbaitek Mundiño-Arañaz kaleetatik, udaletxe ondoko kaletik joateko ohitura hartu dute. Udaletik azaldu dutenez, "ondorioz, oso egoera arriskutsuak sortzen ari dira aurrez aurre autoak heldu direlako, eta auto-gidariak ez dituztelako bizikletak ikusten".

Udako jolas-gunean izena emateko epea zabalik

Haurrak euskaraz aritzeko ekintzak garagarriaren 25etik garilaren 27ra, 10:00etatik 13:00etara

LAKUNTZA

Lakuntzako Udalak haurrei zuzendutako aisialdi programa eskaini nahi du uda partean. Horretarako, alde batetik, begiraleak kontratatuzko deialdia egin du eta, bestetik, euren seme-alabak udako jolas-gunean parte hartu nahi duten gurasoek izena emateko epea zabalik dute. Lehengoei dagokienez, curriculum-a, jolas-gunearen antolaketa eta ekintzen proposamena aurkeztu beharko dute. Udako jolas-gunea euskaraz izanen denez, EGA titulua edo baliokidea ere

aurkeztu beharko dute. Garagarriaren 22tik garilaren 27ra arteko kontratua eginen die.

Gurasoek, bestalde, 3 urtetik gorako haurren izena eman dezakete. www.lakuntza.eus udal web orrian dagoen eskabidea bete beharko dute eta bankuan egindako ordainagiriarekin udaletxera joan beharko dute. Batengatik 70 euroko matrikula pagatu beharko da, birengatik 35 eta 3ren kasuan 10. Hori errol-datuen kasuan. Bestela, 100 euro. Batzuek eta besteek izen ematea garagarriaren 11ra arte dute.

NON ERABILI?



NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

Bandalux 59,00€/m² (eskaintza berezietan izan ezik).

ML MODA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10 €tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 27 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua tratamendu guztietan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ

%15eko deskontua graduatuetan eta %5 eguzkitakotan.

Pikuxar euskal txokoaren aro berria hastear da

Proiektu berriko bazkide izan nahi dutenek gaurtik eta hilaren 15era arte diru ekarpena egin beharko dute

IRURTZUN

Pikuxar euskal txokoak proiektu berria du esku artean. Lizarra kalean behe solairua eta beste bi dituen eraikina erosiko dute (Laboral Kutxa dagoena) eta han taberna eta elkartearen egiteko dute. Espazio horiek Pikuxarrekin dituen euskalgintza, kulturgintza eta herrigintza taldeek finkatutako helburuak lortzeko bitarteko bat izanen dira. Horiek hiru urteko plan estrategikoan jasota dituzte.

Aro berri hori hastear da eta horretarako proiektuarekin bat egiten duten bazkideak behar dira. Gaurtik 15era arte bazkide egiteko epea zabalik izanen da, haiek sarrerako diru-ekarpena egiteko konpromisoa hartuko dute eta kontratu bat sinatuko dute. Hamabostaldi horretan zuzendaritza batzordekoak bazkide izan nahi dutenekin banaka



Pikuxar berria hartuko duen eraikina.

elkartuko dira, konpromisoaren nondik norakoak azaltzeko.

Bitartean, Lizarra kaleko eraikinean lehen lanak prestatzen hasiak dira, eta baimena lortutakoan zati bat eraisteari ekingo diote; garilerako kanpoaldeko gunea egokitzea espero da.

Mankomunitateak 25 urte egin ditu hondakinak biltzen

Gaurko egunez, 1993an, Sakanako Mankomunitatea hiri hondakinak herriz herri biltzen hasi zen. Horretarako Durangoko Garbile enpresa kontratatu zuen. Bilketa lanean sei pertsona hasi ziren, 2 gidari eta 4 peoi. Kamioi bat Irurtzun eta Arbizu artean ibiltzen zen eta bestea gainontzekoetan. Etxarri, Bakaiku eta Iturmendi ez ziren sartu.



Hondakinak bilketa egiten.

Euskaraldia ekialdean

Euskaraldia ariketaren aurkezpena egin zuten Pikuxarreko euskalgintza batzordeko eta Aizpea euskara taldeko kideek pasa den ostegunean. Bilerara deituta zeuden Irurtzongo talde eta norbanakoak, baita Arakilgo herriak ere. Ekimenaren nondik norakoak azaldu ondoren, bildutakoek iritzia eta ideiak partekatu zituzten, eta Euskaraldia batzordea eratu zen.



AIZPEA EUSKALTZALEEN TOPAGUNA

Ikastolarendako laguntzak legezkoak dira

Hala esan du Kontu Ganberak PSNren parlamentuko taldearen galderari erantzunez

ALTSASU

Nafarroako Parlamentuko UPN-ko eta PSN-ko parlamentuko taldeek Nafarroako Kontu Ganberari azaroan eskatu zioten lau udalek ikastolei emandako diru-laguntzak eta lurren eta eraikinen uztea fiskalizatzeko. PSN-k Altsasuko Udala eta ikastolaren arteko erlazioaren fiskalizazioa eskatu zuen.

Kontu Ganberak Nafarroako Parlamentura bidalitako erantzunean jasotzen denez, fiskalizazio erakundearen iritziz ikastolari utzitako eraikin eta lur publikoak legeak ezarritakoari segituz egin da. "Izan ere, erakunde onuradunak interes orokorreko jardun baterako erabil-tzen dutelako". Kontu Ganberatik gaineratu dutenez, "toki erakundeek tokiko ikastetxei diru-laguntza emateko aukera dute legez". Eta zehazten du ikastolak berak pagatutakoa jasotzen dituen diru-laguntzak baino gehiago dela. Baina zehazten du: "ikastetxe kontzertatu finantziarioa kontzertu bidez egin beharko litzateke". Eta proposatzen du dual laguntzak kontzertuekin koordinatzea edo haietan sartzea. Baita udalek egindako ekarpenak diru-laguntza erregimenean sartzea.



Korpuseko prozesioa Aralarren. ARTXIBOA

Korpus eguna ospatuko da igandean Aralarren

Sakana guztian elizkizun bereziak izanen dira igandean eta, ondoren, batzuetan prozesioak

SAKANA

Kristau liturgia-egutegian Trinitateari lekukoa Corpus Christi edo Korpus egunak hartzen dio eta hori igandean ospatuko da eliza guztietan. Elizkizun bereziak egiten dira eta, ohi denez, hala egiten da Aralarko santutegian ere. 12:30ean meza nagusia izanen da eta hura despeditu ondoren prozesioa eginen dute, elizatik Trinitate ermitarainoko joan-etorria hain zuzen ere. Prozesioa Gurutze Nagusiak eta Aralarko aingeruak zabalduko dute. Aralarko Deun Mikel Kofradiako kideek eramandako palioaren azpian apaizak kustumodia eramanen du eta hainbat fededunen laguntza izanen du ibilbidean. Hura despeditzean goiaingurua gurtzeko aukera izanen dute fededunek.

Hainbat herritan elizkizun solemneak eta prozesioak izanen dira etzi. Haietako askotan Jaunartzea egin duten haurrak izanen dira protagonista. Lakuntzan jai eguna da. Arbizun prozesio ederra egiten da, etxeetako sarrerak eta atek majo edertzen dituzte, eta ibilbidean jartzen diren bi aldareetan geldialdiak egiten ditu prozesioak. Uharteko Arakilen ere estandarteak eta beste ateratzen dituzte. Ur-diainen jaunartzeak izaten dira.

Lakuntzan kintoekin eta Korpusarekin, asteburu bete

Lakuntzarren biharko eta etziko agendak beteta daude. Larunbatean herriko kintada guztiak eguerdian poteoan elkartuko dira. Ondoren, nork bere alde egiten du, bazkaltzera. 1978ko kintoak arduratu dira aurten gauean musika jarriko duen disko-jartzailea kontratatzeaz, baina aurretik, 19:30ean Chuchin Ibañez eta Los Charros taldearen kontzertua izanen da plazan. Igandean, berriz, Korpus egunarekin, meza berezia izanen da elizan. Haren ondoren, prozesioa eginen da. 18:30ean kintoek alkate dantza dantzatuko dute plazan. 19:00etan Iñaki Bizkairerkin dantzaldia izanen da eta 20:00etan auzatea.

Euskal festa ospatuko da bihar Etxarri Aranatzen

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak pasa den larunbatean Haurren eguna antolatu ondoren, gazteendako propio prestatutako egitaraua du biharko: Euskal Festa. Baserritarrez jantzita joateko gonbidapena egin dute antolatzaileek.

Egitaraua gaztetxetik 10:00etan botako den gazte etxajuarekin hasiko da. 11:00etan Dux zena omenduko dute. Eguerdian herri kirol saioak izanen dira. 14:30ean bazkaltzera elkartuko dira eta 18:00etan Eonian elektrotzarangarekin ariko dira. 21:00etan bokata-jana txoznan. Despeditzeko, 23:00etan, Lur-j, Eztanda eta Zirkirik Bez! taldeen kontzertuak izanen dira.

Altsasuko alde zaharreko festa bihar izanen da

Seigarren aldia izanen da Altsasuko Alde Zaharreko auzotarrek euren festa ospatzera elkartuko direna. Ohi dutenez, kaleko askaren ondoren goizetik bazkari-rako zikiroa prestatzen hasiko dira. Karpak, mahaiak eta bes-telakoa k jarri ondoren, 13:00etan, gosaldia eginen dute. Haur eta heldu, mahaira 150 bat pertsona eseriko dira bazkaltzera.

Udaberri eta Larrañeta finalista eguna, igandean

MENDIA Auntzetxen izango da ospakizuna. Gaur Javier Zelaiak argazki proiektzioa egingo du Altsasun

Igandean Etxarri Aranazko Udaberri eta Larrañeta mendi taldeek finalista edo azkenzale eguna ospatuko dute. Goizeko 9:00etan jarri dute hitzordua Etxarriko plazan, herriko baso eta mendietan barna buelta ederra egin eta Auntzetxen biltzeko. Bertan, hamaiketako hartu eta finalista eguneko dominak banatuko dituzte.

Zelaiaren argazkien proiektzioa

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak gaurko, ostiralerako, argazki proiektzioa antolatu du bere egoitzan, 20:30ean. Zehazki, aipatu taldeko kide Javier Zelaiak hartutako irudiak dira ikusiko direnak, mendi-paisaje ikusgarriak. Bestalde, bizpahiru aste barru aurtengo mendi ibilbideetan hartutako argazkien proiektzioa egingo dute.

Harpeara, Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak ekaineko irteera prest dauka. Ekainaren 10ean Harpeara (Orbaizeta) mendi martxa egiteko asmoa dute gure mendizaleek. Autobusa goizeko 6:00etan aterako da Olaztitik. Ohiko tokietan eman behar da izena, edo 639 117 631 telefonora hots egin.

TRIATLOIA Andueza eta Arrizabalaga txapelkun Antsoainen

Asteburuan VIII. Antsoaingo Triatloia jokatu zen, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria. Sakanako Triatloi Taldekoek sekulako maila eman zuten, bi proba irabazita bueltatu baitziren. Horrela, gizonen aurre benjamin mailan Oihan Andueza izan zen txapelkuna eta gizonen benjaminen mailan Mikel Arribabalaga.

Errugbi jaialdia Etxarrin: La Unica vs Gaztedi

ERRUGBIA Bihar, larunbatean, 17:00etan, Euskal Ligako 1. mailan jokatzeko bi taldeen arteko lehia jokatu da San Donato zelaian. Sakanako errugbi sustatzeko bidean, 43 neska-mutikok eman dute izena Mank-ek antolatutako campusean

Etxarriko I. Errugbi Txapelketa jokatu da bihar, larunbatean, 17:00etan, San Donato zelaian. Zehazki, Euskal Ligako 1. mailan jokatzeko bi taldeen arteko lehia izango da jokoan egonena: Iruñeko La Unica eta Gasteizko Gaztedi taldeen artekoa. Etxarri Aranazko Udalak antolatu du aipatu errugbi txapelketa, Sakanako Mankomunitatearen, Etxarri Aranatz futbol taldearen eta Nafarroako Rugbi federazioaren laguntzarekin.

Sakanako errugbi sustatzeko lanean dago Mank

Sakanako errugbi sustatzeko lan handia egiten ari dira azkenaldian honetan eragile ezberdinak. Esaterako, Sakanako Mankomunitateak Sakanako neska-mutilei zuzendutako errugbi campusa antolatu du aurtengoa, nobedadea. Nafarroako errugbi federazioak oso begi onekin hartu zuen campusa antolatzea-



La Unica talde nafarra lanean ikusteko aukera izango dugu bihar Etxarrin. LA UNICA

NAFARROAKO ERRUGBI FEDERAZIOAK SAKANAKO AHALEGINA BABESTEN DU

ren ideia, eta campusa sustatzeko eta errugbi ezagutarazteko Sakanako hainbat ikastetxeetan hitzaldiak eta erakustaldiak antolatu zituen apirilean, errugbi zer den, nola jokatzeko den

eta errugbiak sustatzen dituen baloreak ezagutarazteko.

43 neska-mutiko Sakanako errugbi campusean

Badirudi sustapen lanak emaitza paregabea izan duela, izan ere, 8 urtetik 13 urte bitarteko 43 neska-mutikok eman baitute izena Sakanako errugbi campuserako. Etxarri Aranazko futbol zelaian izango da, ekainaren 11tik 15era, 15:00etatik 19:00etara. "Erantzuna oso ona izan da" nabarmendu du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Hiru monitore

Hiru monitorek hartuko dute Sakanako errugbi campuseko ardura: Leire Rodriguez, La Unica errugbi taldeko jokalaria eta Sakanako ikastetxeetan errugbi saioak eskaini dituena; Gorka Garate, errugbi jokalaria eta entrenatzailea; eta Gaizka Ocaña, Eibarko jokalaria eta Sakanako errugbi campusa antolatzeko sustatzaileetako bat.

Sakanako errugbi campusa hasteko gogotsu daude guztiak. Etxarri Aranazko San Donato futbol zelaian trebatuko dira. "Ekainaren 13an, San Kiriko eguna denez, lehenengo bi orduak futbol zelaian egingo dituzte eta ondorengo biak festa egingo den Andra mari ermitaren ondoan. Eta egunen batean ere igerilekura joango dira" gaineratu du Gerrikagoitiak.



IRURTZUN

Irurtzongo Txapelketari agur

PILOTA Ikusgarriak izan ziren larunbatean jokatuak XXVI. Irurtzongo Pilota Txapelketako finalak, final oso estuak eta borrokatuak. Zoritxarrez, txapelak ez ziren etxean geratu.

22 urtez azpiko finalean Nazabali eta Arbizuri 17 eta 22 irabazi zieten Canabalek eta Cordonek, partida gogorrean. Senior mailako 3. eta 4.

postuak erabakitzeke partidari, Olazabalek eta Jon Gorritik 22 eta 17 irabazi zieten Iriarteri eta Sarasari. Seniorren finalean Alberto Ongay satrustegiarrak eta Gorrotategik Labaka eta Telletxea izan zituzten aurkari. Edonor gailendu ahal izan zen, baina, azkenean, 21 eta 22 gailendu ziren Labaka eta Telletxea, txapela etxetik eramanez.



Kategoria txikietako lasterketetan oso gustura aritu ziren neska-mutilak. UTZITAKOIA

Aitzkozar krozean Sanz eta Arratia onenak

ATLETISMOA Bakaikuko lasterketa herrikoian 119 korrikalarik hartu zuten parte, guztira, horietatik 51 proba nagusian. Sergio Garcia de Eulate eta Erkuden San Martin sakandarrak bigarrenak sailkatu ziren

Larunbatean jokatu zen XIV. Aitzkozar krosa, Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak sarirako baliagarria den bigarren lasterketa. Bakaikuko Bakarrekoea elkarteak eta Iturmendi diko Aitzkozar elkarteak antolatzen dute, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin, eta helburua atletismoa bulkatzea

da. Urtero herri batek hartzen du proba antolatzeko ardura eta aurten Bakaikuri egokitu zitzaion.

Tarteka zaparradak, tarteka ateri

Zaparrada arratsaldea izan zen larunbatekoa, baina probak jokatzerako orduan eguraldiak

nolabaiteko tregua eskaini zuen, bereziki helduen lasterketan. Horrela, tarte nabarmenean ateri burutu ahal izan zen Aitzkozar krosa.

68 kategoria txikietan eta 51 proba nagusian

Guztira 119 korrikalarik hartu zuten parte XIV. Aitzkozar herri

lasterketan, horietatik 63 kategoria txikietan, prebenjaminatek hasita kadete mailara arte. Ondoren 51 korrikalarik proba nagusiari ekin zioten (8,1 km); Bakaiku eta Iturmendi arteko zirkuitu gorabeheratsuari bi buelta eman behar izan zizkionten, junior mailakoek, aldiz, buelta bakarra (4,05 km). Beste Iruña klubeko Daniel Sanz El-duaienek hasieratik hartu zuen agintea; bakarrik iritsi zen helmugara (27:38), Dantzaleku Sakanako Sergio Garzia de Eulateri ia 2 minutuko errenta ateraz (29:23). Eduardo Lopez sestaoarra hirugarrena sartu zen (29:50).

Emakumezkoetan Maite Arratia lazkaotarrak ez zuen areririk izan (32:33) eta 5 minutu pasa atera zizkion bigarrenari, Erkuden San Martin etxarriarrari (37:53). Ginesa Lopez altsuarrak osatu zuen podiuma (37:53).

Bukaeran auzate ederraz gozatu zuten korrikalariak, indarrak berreskuratzeko. Oroigarria jaso zuten guztiok, eta lehendabiziko hirurek trofeoak eta oroigarriak. Hurrengo urtean Iturmendik hartuko du proba.

SERGIO GARZIA DE EULATE ETA ERKUDEN SAN MARTIN IZAN ZIREN PROBAKO LEHEN SAKANDARRAK

Sakandarrak XIV. Aitzkozar Krozean

Gizonak

1. Daniel Sanz (Antsoain):	27:38
2. Sergio G. Eulate (Alts):	29:23
6. J.C. Gomez (Alts):	30:34
7. Fco. Gomez (Alts):	30:41
8. Antton Zelaia (Urd):	30:41
9. Iñaki Alvaro (Alts):	30:52
10. Patxi Cano (Alts):	31:26
11. Gaizka D. Garayo (Bak):	32:41
12. Mikel Luis (Bak):	33:14
13. Gorka Chamorro (Alts):	33:26
16. Urko Agirre (Iturm):	34:13
17. Esteban S. Roman (Arb):	34:21
18. Haritz Goikoetxea (Alts):	34:35
19. Asier Ansa (Alts):	34:41
20. Joseba Galartza (Itur):	34:51

Emakumeak

1. Maite Arratia (Lazkao):	32:33
2. Erkuden S. Martin (Etx):	37:53
3. Ginesa Lopez (Alts):	37:53
4. Joxepa L. Goikoetxea (Itur):	46:51
5. Txaro Ondarra (Bak):	50:57

Kadeteak

1. Rober Perez
1. Eider Vicente

Jubenilak

1. Haizea Artola

*Sailkapen osoa, helduena eta kategoria txikiena: www.guaixe.eus



UTZITAKOIA

106 bikote Andra Mari ikastolaren Binakako lasterketan

ATLETISMOA Larunbatean jokatu zen Andra Mari ikastolaren V. Binakako Lasterketa, Naparpellet Saria. 5 kategoriatan jokatu zen: 2-4 urte bitarteko Molto edo moto lasterketa; Haur Hezkuntzako proba, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako lasterketa, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoena eta Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrerakoena. Txikienekin helduenekin osatu zuten bikoa eta handienekin, aldiz, nahi zuten moduan. Guztira 116 bikotek

hartu zuten parte eta bukaeran ikastolako irakasleak ikasleen kontra aritu ziren sokatiran. Auzateak eta photocallak borobildu zuten festa. Bestalde, Borda jatetxeko afaria Ainhoa Urbek eta Leire Arruabarrenak irabazi zuten eta 8 kidez osatutako lehiari Lokartuezinak taldea gailendu zen eta Urbasa Abentura parkeko sarrerak lortu zituzten opari. Ikastolak balorazio positiboa egin du. "Gurasoak eta seme-alabak elkarrekin aritzea oso polita da" adierazi du.



Parte hartzaileek talde argazkia egin zuten. BI SISTERS

Kañamares eta Loizu nagusi Irurtzongo V. Trinitateko Igoeran

MENDI LASTERKETAK 47 korrikalarik parte hartu zuten Irurtzongo proba herrikoian

Larunbat goizean jokatu zen, Irurtzunen, V. Trinitateko igoera, Guan Taldeak Irurtzongo Udalaren eta Oreka eta Bi Sisters babesleen laguntzarekin antolatutako kronometratutako mendi igoera. Eurria ari zuela aritu behar izan zuten proban izena eman zuten 47 korrikalariek. Hala ere, Guan taldeko Roberto Martilek adierazi digunez "igoeraren 5. edizioa izan zen eta lehendabizikoz eurria egin zuen, euri asko, baina betiko moduan giro oso polita izan zen".

Irurtzongo aska-plazatik aterata, Ergako Trinitate ermitara

igo behar izan ziren korrikalariak, banaka aterata, proba kronometratua baitzen (3 km eta 500 m desnibel +). Gizonezkoetan Imanol Kañamares izan zen nagusi (23:58), aurreko urteko irabazle Gorka Sarasibarren (24:06) eta Evaristo Noveletaren (24:51) aurretik. Eta emakumezkoetan Maria Loizuk irabazi zuen (30:36), baina soilik 2 segundo atera zizkion Idoia Alvarez (30:38). Maider Iragi izan zen hirugarrena (32:26).

Bukaeran auzate ederraz gozatu zuten korrikalariek eta Ergan bildu ziren ikusleek.



R.GOÑI

Irurtzun karateken bilgune

KARATEA Larunbatean 28. Irurtzongo Karate Txapelketa jokatu zen, Nafarroako Kirol Jolasetarako baliagarria zen kata saioa, kimuen, haurren eta jubenilen mailan. Guztira 133 karateka bildu ziren, benjaminak ere kontuan hartuz, 10 klubetakoak, tartean Irurtzongo Shotokan taldekoak, Luis Martilen aginduetara, eta Altsasuko Karatearen Lagunak taldekoak.

Beñat Katarain 41.a Zegama-Aizkorri

MENDI LASTERKETAK Lakuntzarrak lau ordu t'erdi pasa behar izan zituen mundu mailako mendi maratoi famatua burutu ahal izateko. Ohikoa denez, sekulako jendetza bildu zen probako aldapa gogorrenetan, korrikalariak animatzera

Rémi Bonnet suitzarra eta Ida Nilsson norvegiarra izan dira 17. Zegama-Aizkorri mendi maratoiko protagonistak. 23 urteko Rémi Bonnet bi alditan izan da nagusi, batetik, ostiralean 3,2 km-ko Zegama-Aizkorri kilometro bertikala irabazi zuelako, nagusitasun handiz (31:24). Eta, bestetik, igandean suitzarrak sorpresa eman zuen eta 42 km eta 5.472 metroko desnibela zuen Zegama-Aizkorri mendi maratoia irabazi zuen (3:53:56), aurreko urteko irabazle eta egun errekorra duen Stian Angermunderen aurretik (3:55:28). "Duela bi egun kilometro bertikala irabaztea eta gaur maratoia, Stian lagunaren aurretik, sinestezina da, bete den ametsa. Pozik nago podiuma nire lagunekin partekatuko dudalako. Bikaina izan da, giroa ikusgarria. Hurrengo urtean itzuliko naiz" zioen txapelkunak, antolakuntza, ikusleak eta paisajearen edertasuna azpimarratuz. Lehen euskalduna Aritz Egea izan zen, helmugan bosgarrena (4:05:00). Emakumezkoetan proban debutatu zuen Ida Nilsson norvegiarra bikain aritu zen (4:38:38), Laura Orgue (4:45:46) eta Ruth Croften aurretik (4:48:41). Oihana Aizkorbeitia seigarrena sartu zen (4:57:19).

Lohi asko

Tarte gehienez eguzkia izan zuten lagun korrikalariek, baina ibilbidean lohi asko topatu zuten eta tarteka ere laino artean ibili behar izan ziren. Ibilbidean barna -Aratz, Sancti Spiritu, Aizkorri, Oltze...- korrikalariak animatzera pilatu ziren zaleek ere ez zuten paragosa zabaldu behar izan. Sakandarren artean azkarrena Zegaman bizi den Beñat Katarain lakuntzarra izan zen. 41. postuan sailkatu zen Katarain, postu oso ona, eta lehen zegamarraren saria jaso zuen (4:32:31). Gainontzeko sa-



Beñat Katarain aldapan gora, ehunka zaleen animoak jasotzen. OIER ESCUDERO

RÉMI BONNET ETA IDA NILSSON IZAN ZIREN TXAPELDUNAK ETA SAKANDARRAK OSO TXUKUN IBILI ZIREN

kandarrek ere lan bikaina egin zuten.

Juniorrak eta Km Bertikala

Junior mailako Zegama-Aizkorri Junior Trailean (10,4 km) 78 korrikalarik osatu zuten proba eta Nicolas Molina gailendu zen (44:59). Jabi Gasanz altsasuarra 15.a sartu zen (51:35). Eta ostiralean jokaturako Zegama-Aizkorri Km Bertikalean 215 korrikalari sailkatu ziren, Rémi Bonnet buru zela (31:24). Ivan Sobredo 77.a sailkatu zen (42:57).

Lantzeluze

Larunbatean Lantzeluze mendi lasterketa jokatu zen. Alberto Azparren oibartarrak (22:18) eta Ana Alfaro lerindarrak (27:48) irabazi zuten. Adur Senar lakuntzarra 9.a sailkatu zen (25:02) eta Iñigo Orella etxarriarra 57.a (34:36).

Sakandarrak Zegama-Aizkorri

Zegama-Aizkorri maratoian gain, Junior mailako Trailean eta Zegama-Aizkorri Km Bertikalean aritu ziren sakandarrak

Zegama-Aizkorri maratoia (42,195 km)

1. Rémi Bonnet: 3:53:56
41. Beñat Katarain (Lak): 4:32:31
126. Joxeja Maiza (Etx): 5:02:46
233. Mikel Rubio (Irur): 5:48:23
361. J. Salgado (Alts): 6:43:27
371. Aitor Salinas (Etx): 6:46:32

Zegama-Aizkorri Junior Trail (10,4 km)

1. Nicolas Molina (Durcal): 44:59
15. Jabi Gasanz (Alts): 51:35
38. Jokin Bereziartu (Alts): 56:43

Zegama-Aizkorri Km Bertikala (3,2 km)

1. Rémi Bonnet: 31:24
77. Ivan Sobredo (Alts): 42:57
83. Alatz Agirre (Alts): 43:20



Goi mailako partida izan zen asteartean Mulierrek eta San Ignaziok Etxarrin eskaini zutena. UTZITAKO

Mulierrek ezin izan zuen San Ignazio bidean utzi

FUTBOLA Euskal Herriko Emakumezkoen Kopatik kanpo geratu zen Mulier, final laurdenetan. Mulierreko Igoa, Cerezo eta Vilariño jokalariek sakandarrek partida jokatu zuten. Mulierren hurrengo helburua Nafarroako Kopako finala da

Asteartean emakumezkoen futboleko puntako partida hartu zuen Etxarrin. Euskal Herriko Emakumezkoen Kopako final laurdenetako partida jokatu zuten Mulierrek eta Bizkaiko San Ignaziok.

Mulier taldean lau sakandar dabilta: Ane Cantero atzelari altsasuarra, Irati Igoa aurrelari etxarriarra, Aroa Cerezo atzelari lakuntzarra eta Maitane Vilariño erdilari olaztiarra.

Partida oso lehiatua izan zen Mulierrek eta San Ignaziok eskaini zutena. Ane Cantero izan ezik, lesionatuta baitago, gaintzeko hiru jokalariek sakan-darrak jokatzeko aukera izan zuten Etxarrin bilduta-

koek. San Ignazio 2 eta 0 aurreratu zen, baina Maitane Vilariño sartzutako golari esker Mulier markagailuan gerturatu zen. Nafarrak saiatu ziren, baina azkenean 2 eta 1 galdu zuten eta San Ignazio taldea izanen da Euskal Herriko Emakumezkoen Kopako finalerdia jokatuko duena, Errealaren kontra.

Nafarroako Kopako finala, hurrengo erronka

Mulierren hurrengo erronka Nafarroako IMQ Kopa lortzea da. Finala ekainaren 9an jokatuko du Mulierrek, Tafallako San Francisco zelaian, 18:30ean, hain justu bigarren mailara igotzen Berriozar taldearen kontra.

Emakumezkoen erregional mailan ligako azken partida jokoan

Emakumezkoen erregional mailan 33. jardunaldia jokatu zen asteburuan. Altsasuk Izarra taldea hartu zuen Dantzalekun eta husnako berdinketarekin despeditu zen partida. Saillapen orokorrean Berriozar da liderra (97 puntu, denboraldian partidarik galdu gabe) eta Altsasu 13.a da (26 puntu).

Asteburuan Emakumezkoen erregional mailako azken jardunaldia jokatuko da. Hain zuzen ere, erregionaleko Mulier B taldearen kontra ariko da Altsasu, igandean, 17:00etan, Mutiloako instalazioetan.

Etxarrin preferente mailari eutsi dio; Lagun Arteak, oraindik zain

FUTBOLA 2B, 3. maila eta Autonomikoa despeditzen direnean jakingo du Lagunek mailari eusten dion ala ez

Preferenteko gure taldeen etorkizuna argitzen doa. Izarrak 2B mailari eustea lortu du, asteburuan Llagostera taldeari 1 eta 0 irabazi eta gero. Horrek ondorioa izan du; Izarrak 2B mailan jarraitzean, Corellanok 3. mailari

eutsi dio, maila autonomikoan 12. postuan sailkatzen den taldeak kategorian jarraituko du eta Preferente mailan Etxarri Arantzek mailari eutsi dio.

Lagun Arteak taldeak, ordea, 2B, 3. maila eta maila autono-

mikoko ligak despeditu arte itxaron beharko du preferente mailan jarraitzen duen edo mailaz jaisten den jakiteko.

Altsasuk denboraldiari agur Erregional mailan dabilen Altsasuk, igoera faseko azken partidaren, 1 eta 0 irabazi zion Itaroa Huarteri. Burladesek, Itaroa Huarterek eta Pamplonak lortu dute mailaz igotzea. Altsasu 7.a sailkatu da (18 puntu) eta hurrengo denboraldian erregional mailan jarraituko du.



Lagun Arteako 2. mailako jubenilak, lortutako koparekin. LAGUN ARTEA

Jubenilen 2. mailako Kopa, Lagun Artearendako

FUTBOLA Lakuntzako taldeak irabazi du jubenilen 2. mailako Kopa, finalean Marcellari 3 eta 1 irabazita

Preferente mailako Lagun Arteak oraindik ez daki kategoriari eutsiko dion, baina jubenilen mailan albisteak ezin hobekak dira: Jubenilen 2. mailako Kopa irabazi du Lagun Arteak.

Jubenilen 2. mailako Liga despedituta –seigarrenak sailkatu ziren lakuntzarrek– ekin zion Lagun Arteak Kopari. Final laurdenetan Amaya A taldeari 2 eta 1 irabazi zion Lagun Arteak. Finalerdietan Cirbonero izan zuten aurkari lakuntzarrek eta Lagun Arteak irabazi zuten, atzera ere 2 eta 1eko markagailuarekin. Horrela, finalerdietan

Agoitz taldea bidean uztekin zetorren Marcellaren kontra jokatu zuen Kopako finala Lagun Arteak, Tiebasen. Hainbat zale hurbildu ziren bertara, animoak ematera.

Finaleko partida bikainean, azkenean Lagun Arteak 1 eta 3 irabazi zion Marcellari, Gorka Hernandezek (2) eta Iker Anduezak sartutako golei esker. Merezitako kopa da, Lakuntzako futbolzaleen animoak piztu dituena. Jakina, jubenilek gus-tura ospatu zuten kopa lortu izana, lehenengo Tiebasen, eta Lakuntzan ondoren.



ETXARRI

Etxarri, Hendaiaiko txapeliduna

FUTBOLA Etxarri futbol taldeak Hendaiaiko Futbol 7 txapelketan parte hartu zuen aurreko asteburuan. Beste behin, txapelketa bikaina egin zuten etxarriarrek eta Hendaiaiko torneo prestigiotsu hau irabaztea lortu zuten, final eder eta ikusgarrian Hiriberriri 4 eta 0 irabazi eta gero. Argazkian bi talde finalistak agertzen dira. Zorionak bie!

Sei taldek ekin diote Irurtzungo Iratxo Botxa Txapelketari

BOTXA Ligaxkaren ondoren, ekainaren 15ean jokatuko dira finalerdiak eta ekainaren 17an final handiak

Irurtzungo Trinitate festekin batera hasi zen, aurreko asteburuan, Iratxo elkarteko botxa denboraldia. Jakina denez, botxa petanka antzeko joko tradizionala da, Irurtzungo Iratxo elkartean zaletasun handia duena.

Zehazki, Iratxo Botxa Txapelketa da aurreko asteburuan jokoan jarri zena, denboraldi honetako lehengo txapelketa. Sei hirukote eman dute izena bertan eta, aurreko astetik hasita, asteburu txapelketako ligaxka jokatuko dute Iratxo elkarteko botxategian.

Ekainaren 15ean Iratxo Botxa Txapelketako finalerdiak jokatuko dira eta ekainaren 17an final handiak. Ondoren, gazteen eta haurrekin botxa sustatzeko ekitaldiak antolatuko ditu Iratxok eta Banakako, Binakako eta Elkarteen arteko Botxa Txapelketen txanda helduko da.

Asteburuko jardunaldia

Iratxo botxategian

Ostiralean

- **19:00** Tximeleta / Mikel-Aitro-Yago
- **20:15** Migel-Joana-Mari / Edurne-Txutxurrin-Tere

Larunbatean

- **19:00** AHTrik ez / Migel-Joana-Mari
- **20:15** Tximeleta / Edurne-Txutxurrin-Tere

Igandean

- **19:00** Desesperados / Mikel-Aitro-Yago
- **20:15** Tximeleta / Desesperados



Nafarroako Taldekako Txapelketan parte hartu duten Sakana Iskizako taldeak. ISKIZA SAKANA

Iskiza Sakana dantzan!

GINNASIA ERRITMIKOA Iskiza Sakanak ikasturte bukaerako jaialdia antolatu du gaur, ostiralean, 19:30ean, Iortia Kultur Gunean. Taldekako Nafarroako Txapelketan Iskizako jubenil mailakoak hirugarrenak sailkatu dira

Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko taldeak ikasturte bukaerarako jaialdi polita antolatu du gaur, ostiralean, 19:30ean, Altsasuko Iortia Kultur Gunean. *Iskiza Sakana dantzan!* lelopean, urtean barna landutako koreografia ederrak eskainiko dituzte. Zehazki, aurtengo txapelketatan aurkeztutako ariketak ikusteaz gain, erakustaldirako propio prestatutako beste zenbait dantza ikusi ahal izango dira. Emanaldian eskolako gymnastek, txapelketako gymnastek eta ira-


kasleek hartuko dute parte, taldeka zein banaka.

Egun Sakana Iskiza Gimnasia Erritmikoko taldean 45 gimnasta inguru trebatzen dira, 20 eskola taldean eta 25 txapelketen taldean. Olaia Agirre, Cristina Nuncio, Maria Remolina, Ainhoa Imaz eta Olaia Granizo dira monitorea.

Taldeko Nafarroakoan, jubenilak hirugarrenak

Azken asteburuetan Taldekako Nafarroako Gimnasia Erritmi-

koko Txapelketako 1. eta 2. faseak jokatuko dira. Aurten Iskiza Sakanako hiru talde aritu dira 3. mailan -kimuen, haurren eta jubenilen taldeak- eta 4. mailan talde bat, kadete mailakoa. Jubenil mailako taldeak podiumera heltzea lortu zuen, 2. fasean 3. postuan sailkatu eta gero. Honi esker, sailkapen orokorrean hirugarrenak izan ziren Iskizakoak. Gainontzeko taldeek ez zuten podiumera igotzea lortu baina oso kontentu daude aurten lortutako bilakaerarekin.



UTZITAKOIA

Palacios laugarrena Arnedillon

AUTOMOBILISMOA Arnedilloko Igoeran Iker Palacios lakuntzarrak (BRC 05 Evo) lan ederra egin zuen eta laugarrena sailkatu zen (2:58.145), Asier Bidaburu irabazletik 9 segundora. Mikel Mendinueta (Peugeot 205 Gti) ez zuen zortea alde izan; larunbateko mangak osatu zituen baina igandean, autoan arazoak izan eta gero, proba utzi behar izan zuen.

Yoseikan budo erakustaldia gaur Altsasun

YOSEIKAN BUDO Gaur, ostiralean, 17:00etan, ikasturte bukaerako erakustaldia hartuko du Burunda pilotalekuak

Sakanako Txuixoo Yoseikan Budo taldeak ikasturtean barna ikasitakoa praktikan jarriko du gaur, ostiralean, 17:00etatik aurrera Altsasuko Burunda pilotalekuan. Aritz Agirrebengoa San Roman da taldeko irakaslea,

eta Etxarri Aranatzan eta Altsasun ematen ditu eskolak. Burundako gaurko erakustaldian, adin txikienetik hasita helduenera arte, yoseikan budoa nola lantzen duten ikusteko aukera izango da.

Yoseikan budoaz

Japoniatik datorren arte marziala da, ikuspegi zabal batetik landua. Borroka-arte da, 1975ean Hiroo Mochizuki japoniarrak ofizialki fundatuta. Samurayen tradizioan txertatzen da. Yoseikan budoaren onurak asko dira. Besteak beste, gorputz mugimenduaren kontrola, nortasun pertsonalaren garatzea eta, garrantzitsuenak, alaitasuna. Hainbat modalitatetan aritzeko trebetasuna ematen die, kick boxingean, Combat Jujitsu...

Altsasu, tropel juniorren bilgune izango da igandean

TXIRRINDULARITZA XXXIII. Udaberri Trofeoa jokatu da etzi, 10:30ean, Burunda klubak antolatuta

Burunda Txirrindularitza Klubak antolatuta, igandean XXXIII. Udaberri Trofeoa jokatu dute junior mailako txirrindulariek Altsasan. Goizeko 10:30ean abiatuko da, Foruen plazatik, 86 km dituen lasterketa.

Txirrindulariek hasieran Ziordiraino joko dute, buelta hartu eta Olaztitik Altamira igotzeko. Altsasutik jaitsiz, Etxarri Aranzerraino iritsiko da tropela. Bertan buelta hartu eta Ziordiraino joango dira berriz, bigarrenez Olaztitik Altamira igotzeko. Behin jaitsita, Iturmendiraino iritsiko dira txirrindulariak, han buelta hartu eta atzera ere Ziordiraino heltzeko. Handik buelta hartuta, Olaztitik hirugarrenez igoko dute Altamira, portua jaitsita Altsasuko helmugaraino iristeko.

Aurreko urtean Turismo Villanua taldeko Raul Rotak irabazi zuen (2:10:47), helmugara bakarrik helduta, eta hirugarrena, 52 segundora, Intersport Irabiako Josu Etxeberria iturmendierra izan zen. Aurten etxeko taldeak, Burundako Quesos Albeniz taldeak, eta bizilagunak, Aralarko Intersport Irabia taldeak, nahiko dute Altsasuko Udaberriko Trofeoa lortzea.

SASKIBALOA Ziordia 3x3 Sasi torneo igandean

Duela bi asteburu Ziordiko Herri Lasterketa jokatu zen, eta asteburu honetan kirolak atzera ere protagonismoa izango du. Izan ere, iganderako Ziordia 3x3 Sasi torneo antolatuta dute. Hiru partaidez osatutako taldeak lehiatuko dira elkarren artean. Goizeko 10:00etan haurren txapelketa hasiko da eta arratsaldeko 17:00etan, aldiz, helduena.

Josu Etxeberria, Nafarroako txapelduna

TXIRRINDULARITZA Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko iturmendiarrak Galarko Zendea Sari Nagusia irabazi zuen larunbatean Eskiroitzen, Nafarroako Txapelketa zena. Kadeteetan Aitor Alberdik Murietako lasterketa irabazi zuen

Larunbatean juniorren mailako XVI. Galarko Zendea Trofeoa jokatu zen Eskiroitzen (85 km), aldi berean Nafarroako Txapelketa zena. Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria sekulako lasterketa egin zuen, bere taldekideen laguntzarekin, eta bakar-bakarrik iritsi zen Eskiroitzeko helmugara (2:15:01). Horrela, Iturmendikoa da junior mailako egungo Nafarroako txapelduna eta maillot gorria jantzi zuen. Berak ere irabazi zuen probako mendi txapelketa. Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa 10.a sartu zen, 3:33ra eta El Caserío Valsay taldeko Jon Gil lakuntzarra 12.a, denbora berean.

Talde sakandarretako gainontzeko txirrindulariei dagokienez, Beñat Etxezarreta 19.a sartu zen, Urko Gorriti 20.a, Iker Cerviño 21.a, Imanol Galarza 22.a, Xabier Mauleon 28.a eta Inhar Astitz 29.a.



Josu Etxeberria, Nafarroako txapeldunaren maillot gorriarekin. JESUS BARADO OCAÑA

KADETEETAN ALBERDI GARAILE MURIETAN ETA AFIZIONATUETAN JUANGO LEHEN SAKANDARRA ITZULIAN

Aitor Alberdi garaile Murietan Kadeteetan, aurreko asteburuan Villatuertan irabazi eta gero, igandean Murietan (33 km) lortu zuen garaipena Intersport Irabiako Aitor Alberdik, Aralar klubaren poztasunerako. Garai-

pen bikoitza izan zen, Aitor Alberdi bakarrik heldu baitzen helmugara (1:55:55) eta 3 segundora bere taldekide Igor Arrieta sartu baitzen. Top tenean beste bi sakandar izan ziren: seigarrena Quesos Albenizko Sergio Lopez sartu zen, eta 10.a bere taldekide Iker Mintegi. Martxel Etxeberria 17.a sailkatu zen, Antonio Gonzalez 19.a, Jon Chamorro 27.a eta Migel Gil 41.a.

Odei Juango, lehen sakandarra Nafarroako Itzulian

Colpack talde italiarreko Francesco Romanok irabazi zuen afizionatuen Nafarroako Itzulia (12:56:30), Lizarteko Antonio Sotori 5 segundo eta Gomur taldeko Oscar Linaresi 11 segundo atera eta gero. Rural Kutxa talde sakandarreko Petr Rikunov bederatzigarrena sailkatu zen, 49 segundora.

Probako lehen sakandarra Telcom taldeko Odei Juango lakuntzarra izan da, sailkapen orokorrean 27.a. Lizarteko Asier Ormazabal ziordiarra 91.a sailkatu zen eta ezin izan zion lehen etapan lortutako lehen nafarren maillotari eutsi. Telcom taldeko Pablo Villar arakildarra 106.a sailkatu zen.

Nafarroako Itzulia proban 21 taldek hartu dute parte, lasterketa oso ikusgarria izan da eta jendetza bildu da proba jarraitzera, txirrindularitzak gurean duen zaletasunaren isla.



UTZITAKOA

Olaztiko bizikleta festan, gustura

KIROLDEGIA Olaztik hartu zuen Sakanako Mankomunitateak antolatutako bizikleta festa. Goizean bildutako familiek Olazti eta Ziordia bitarteko joan-etorrian 2 km inguruko txirrindularitza ibilbide polita egin zuten, Barranka Txirrindulari Taldearen laguntzarekin. Ondoren, auzate ederra zuten zain, fruta eta Abdulk prestaturako siriak gozo bikainak. Jolasen

txanda iritsi zen gero; partxis kolaboratiboan jokatzeko aukera izan zen. Bitartean, Berri Bikes-eko Joakinek eta Muruzabal bizikleta dendako Joxik bizikletako katea eta zulatutako kamera konpontzen irakatsi zuten. "50 pertsona inguru bildu ginen, oso gustura. Kirol materialaren trukea gehiago bulkatzeko ideiak lantzen ari gara" aipatu dute antolatzaileek.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 1

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.
19:00etan kale nagusiko 7. parean.

LAKUNTZA Rey Leon musikala.
Irantzu Gonzalez dantza eskolako lakuntzako ikasleak.
19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Iskiza Sakana Dantzan! Ikasturtean ikasitakoaren erakustaldia.
19:30ean, lortia.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Javier Zelaiaren mendi-argazkien proiektzioa.
20:30ean, Altsasuko Mendigoizaleen egoitzan.

ALTSASU Gure Esku Dagoren giza katean izena emateko mahaia.
19:30etik, Foru plazan.

ALTSASU Campeones filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 2

ALTSASU Pamplona o Mussara zikloturista itzulua 176 km-ko eginen dute Barranka errepidekoek.
08:00etan, San Juan plazatik.

ETXARRI ARANATZ Euskal festa.
Egitaraua 12. orria. 10:00etatik aurrera, gatzetxean.

SAKANA Trena bai, AHTrik ez! marxa Etxarren eta Altsasu artean.
Sakanako AHT Gelditu Elkarlana.
11:00etatik 12:30era arte, ibarrean.

ALTSASU Ongi etorri uda! festa.
17:00etatik 01:00ak arte,
Intxostiapunta gaztegunean.

ALTSASU Zarata dantza ikuskizuna. Irantzu eskola.
18:00etan eta 20:00etan, lortian.

UHARTE ARAKIL Artzaintza tradizioaletik mendiko gaztara. Argazki erakusketaren mustutzea eta hitzaldia.
19:00etan, Uharthe Arakilgo elkartearen.

IGANDEA 3

ALTSASU Malloakera Gaintzatic.
Altsasuko Mendigoizaleak.
08:00etan, egoitzatik.

ALTSASU XXIII. zeharkaldia eginen dute Barranka Txirindulari Taldeko Mendikoek.
9:00etan, taldeko egoitzatik.

ETXARRI ARANATZ Finalista eguna.
9:00etatik aurrera, plazan.

ETXARRI ARANATZ Dantzari txiki eguna.
12:00etatik aurrera, herrian zehar.

ETXARRI ARANATZ Abesbatza txikiaren kontzertua.
18:30etan, Andra Mari basilizan.

LAKUNTZA Chuchin Ibañez y los Chanos taldearen kontzertua.
19:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Musika plazan: Sonakay taldea.
19:30ean, plazan.

ALTSASU Campeones filma.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 4

ALTSASU Estereotipoak hausten. Musika eta dantza ikasleen berdintasunaren aldeko kontzertua.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko plataforma.
19:30ean, udaletxe parean.

ASTEARTEA 5

ETXARRI ARANATZ Zirko erakustaldia. Zirko tailerreko ikasleen erakustaldia.
17:30ean, kultur etxean.

ASTEAZKENA 6

ETXARRI ARANATZ Energia Burujabetza. Eraldaketa norberaren etxean hasten da. Hitzaldia GoiEnerrekin.
18:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Estalopea plazan batzarra.
19:00etan, udaletxean.

OSTEGUNA 7

ETXARRI ARANATZ Aldez aurreko borondateen dokumentuaren inguruko hitzaldia.
10:30ean, osasun etxeko liburategian.

ALTSASU Mi familia del norte filmaren emanaldia.
19:00ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Preso, iheslari eta deportatuak aske. Gudariak direlako, amnistia osoa. AEM.
19:30ean, plazan.



UHARTE ARAKIL Artzaintza tradizioaletik mendiko gaztara argazki erakusketa.
Garagarrilaren 2tik 10era.
Astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta domeketan 12:00etatik 14:00etara, Uharthe Arakilgo elkartearen.



ARBIZU Zorroztarri erakusketa, Zigor Merodio euskal preso politikoak egindako harrizko eskulturak eta Alaitz Areitiok eta Jon Troitiñok egindako bertsoak.
Garagarrilaren 3a arte, 18:00etatik 20:00etara, Udaleko batzar aretoan.



ETXARRI ARANATZ. BirzikiART, artea eta birziklapena uztartzen duen proiektua. Andra Mari ikastolak antolatuta.
Garagarrilaren 8ra arte, astelehenetik ostegunera, 17:00etik 20:00etara, kultur etxean.

ZORION AGURRAK



Iruñe
Zorionak zure 3. urtebetetzean!! Ama, aita, Kiriko eta familia guztiaren partez!! Muxu haundi bat!!

Aitona Gerardo
Zorionak aitona etxeko guztien partez!! Muxu erraldoi bat

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ERRENTAN HARTU

Lakuntzarrak naiz...
Pisu bila nabili Etxarri edo Lakuntza inguruan: txikia eta nahiago hutsik. Edurne edurnegan@gmail.com

ERRENTAN EMAN

Lizarragako Azi Iturri Txokoa San Adrian festetan, garagarrilaren 16,17 eta 18an alokatuko da. Aurten ez dago sukaldarik, beraz, gutxienez 300 euro izan behar da. Enkantea datorren igandean, hilak 3, arratsaldeko 18:00tan Azi Iturri.

Ileapaindegia Olaztin. Alokatu edo eskualdatzen da. Elena 650587669

ETXEBIZITZAK

Aukera! Pisu salgai Etxarri Aranatz. Oso argitsua, bista onekin. 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Deitu 667266746

LANA I NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK
Urdiaingo udalako aisialdirako begiralea behar du. Ezinbestekoak EGA (edo baliokidea) eta monitore titulua. Bestelako ikasketak ere kontuan hartuko dira (magisteritza ikasketak etab.). CV-ak udalarekin jasoko dira

Azulana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pab. txi) telefonoetara hots egin dezatela.

OHARRAK

Etxarri Aranatzko irakurle taldea. Hu-

rrengo hitzorduan Uxue Alberdiren *Jenis-joplin* liburua hizketatuko dira. Garagarrilaren 7an, 19:00etan, Etxarriko liburategian.

Etxarri Aranatzko kontsumitzaileen bulegoa. Garilak 2 eta irailak 3. Iratze elkarte kide batek atzertzen du. Aldez aurretik udaletxean izena eman beharra dago.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehen, 19:00etan, elkar-tzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Otidiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilerka egiten ari dira. Ekarpinak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduz kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzatenak duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Azulana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pab. txi) telefonoetara hots egin dezatela.

www.iragarkilaburak.eus



ESKELA

**Angel
Irigaray Irigaray**

Gogoan zaitugu.

Txapel Azpi Elkartea
Irañeta

ESKELA

**José Calvo Méndez**Hileta elizkizuna, ekainak 1, ostirala,
Ziordiko Andre Mariaren Jasokundearen elizan izango da arratsaldeko seietanNegar egin dezakezu, zure burua itxi, hutsunea
sentitu eta bizkarra eman,
edo berari gustatzen zitzaiona egin:
irri egin, begiak ireki, maitatu eta jarraitu.**Iosu-Nines, Jon-Marta eta Julen-Julene**

ESKELA

**M^aPilar
Razkin Leiza**

(Jose Luis Colomo Bizkairen alarguna)

Ama, beti gure bihotzean
eramango zaitugu**Arbizun, 2018ko maiatzaren 29an**

ESKELA

**José
Calvo Méndez****Iosu, Guaixe Fundazioaren langilearen aita.**

OROIGARRIA

**Juan Inazio
Erdozia Larraza
Fidel Larraza Marin
Fco. Javier
Guruzeaga Etxarri
Felipe Ceberio Maiza
Jose Antonio Goñi Jaca**

Beti gogoan

Etxarri Aranatzko 1953ko kintuek**IZARRA**
HEMEN, ZURE ONDOAN«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI-ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

OROIGARRIA

**Javir Cerviño Antón
Gorka Etxarri Soto
Javier Arkauz Rincon****1979ko kintoak**
LakuntzaINFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

JAIOTZAK

- **Ekhi Benegas Barrenetxea**, maiatzaren 14an Olaztin
- **Euken Lanz Senar**, maiatzaren 21ean Lakuntzan
- **Maren Lazkoz Rojo**, maiatzaren 21ean Egiarretan
- **Abigail Rosillo Berrio**, maiatzaren 22an Izurdiagan
- **Jana Bakache Bayechou**, maiatzaren 26an Olaztin

EZKONTZAK

- **Pedro Maria Olleta eta Maria Elena Villa**, maiatzaren 19an Lakuntzan
- **Imanol Mosqueira Barriola eta Maider Marin Pueyo**, maiatzaren 28an Lizarragan

HERIOTZAK

- **Purificacion Liberal Cambero**, maiatzaren 22an Olaztin
- **Isidra Gomez Sobrado**, maiatzaren 22an Altsasun
- **Angeles Ollokiegi Ollakindia**, maiatzaren 23an Urdiainen
- **Maria Pilar Razkin Leitza**, maiatzaren 29an Arbizun

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🖱 www.tanatoriosirache.es

"G puntua disko berria oso Gozategi da"

IÑIGO GOIKOETXEA GOZATEGI TALDEA

G puntua disko berria kaleratu berri du Gozategi taldeak. Taldearen identitatea mantentzen du diskoak. Grabatzea "gozamena" izan dela dio Iñigo Goikoetxeak

Erkuden ruiz barroso URDIAIN

G puntua diskoa kaleratu berri duzue. Zergatik orain?

26 urte daramatzagu taldea hasi genuenetik eta urte hauetan gauza asko gertatu dira, bai pertsonalki baita taldean ere. Lehendabiziko diskoaren egerra eta oraingo momentua diferenteak dira. Zortzi urte generaman kantu berrirekin disko bat egin gabe. 2013an bilgune antzeko bat egin genuen eta joan zen urtean 25. urteurrena zela eta kontzertuetatik zuzeneko bat egin genuen. Baina kanta berriak sortu gabe zortzi urte generaman. Asierrek bazeukan buruan nahiko melodia eginik, baina ez genuen une bat harrapatzen melodia horiek guztiak hartzeko eta ondo prestatzeko. Joan zen urtea oso polita izan zen eta lan asko egin genuen. Lan dinamika polita hartu genuen eta lanarekin segitzea hoberena zela pentsatu genuen. Izan ere, gero eta zailagoa da bakoitzak gure bizitza dugulako eta gure familiak ditugulako, eta gauza horiek guztiak uztartzea ez da batere erraza. Baina iritsi da diskoa, kaleratu dugu. **Abesti horiek kantatzeko beharra ikusten zenuten?**

Bai, guk behintzat bai. Zortzi urte generaman kanta berriak



Gozategiren G puntua diskoaren aurkezpenean. GOZATEGI

egin gabe. Urtero kontzertuak egiten ditugu eta nahiz eta ehunetik gora kanta izan kontzertu gehienetan jotzen ditugu jendeak eskatzen dituenak. Nolabait gozagoa sartzen zaizu kanta berriak kantatzeko eta gauza berriak esateko ere. Gizartean ere ebolutio bat izan da, nahiz eta batzuetan dirudi ebolutio handirik ez dela egon orain dela 23 urte egindako kantak oso eguneratuta daudelako.

Nolakoa da diskoa?

Oso *Gozategi* da. Nik uste jendeak entzuten duenean ez duela sor-

presa handirik hartuko. Letrek nahiko gauza franko esaten dituzte, letrak egiten busti gara, eta melodiak erraz sartzen dira. Asierrek bere grazia hori badauka letrak egiteko eta kantetan ikusten da. Beti komentatzen dugu ez garela ausartzen kontrolatzen ez ditugun territorioetan sartzen. Guk egiten dugun musika soila da, eta soila denez modu intentsoan kantatu eta jo behar dugu. Horrek ematen die berezitasuna. Taldearen nortasuna ikusten da kantu horiek interpretatzeko garaian.

Titulua xelebrea da, G puntua. Non-dik dator?

Disko hau egiten momentu askotan asko disfrutatu dugu, eta askotan esaten genuen gozamena bat zela. Askotan ateratzen zen hitz bat zen: zer gozamena, zer gustura... Gainera, gurekin ibili den Elkarreko Angel Valdesek Kubako azentuarekin hainbat gauza esateko ohitura dauka eta beti esaten zuen "tremenda gozadera". Gozamena, gustura, gozadera, Asier Gozategi dela eta ni Goikoetxea naitzela... Asierrek ere esaten du askotan nahiko *gelipollas* garela, eta esan genuen: *G puntua* jarriko diogu titulua. Kurioso da eta gauza horiek guztiak azaltzen ditu. Gozategi izena bera ere gozatzeko tokia izango litzateke eta horren inguruan dabil ideia. Musika xume bat jarri eta jende asko berehala goza dadila musika horrekin.

Gozategiren zortzigarren diskoa. Besteekin aldea dago?

Hau bederatzigarrena da kontatzen badugu joan den urtean atera genuen zuzeneko diskoa. Ezberdintasuna da bakoitzaren garapen pertsonala eta nola ateratzen den kantatzeko eta melodiak egiteko garaian. Saiatu gara oso barrutik egiten, beraz, diferentzia handiena da bakoitzaren garapen pertsonal hori. Diskurtsoa ez da gehiegi aldatu, ezta musika sentitzeko modua ere ez. Zerbait kaleratzen duzunean betetzen zaituen lan bat izatea saiatzen zara.

Euskal Herriko festa nagusietan aritu zineten iaz, eta 25. urteurrena ospatzeko zuzeneko disko eta bideo batean bildu eta plazaratu zenuten. Nola aurkezten da aurtengo uda?

Itxita ditugu aurtengo udarako 30 kontzertu eta toki politikak dira. Ez gara rock talde bat edo-

ta modako talde bat. Gure musika herrikoia da eta mugitzen garen eszenatokiak ez dira rock munduko kontzertuetakoak. Ez gara festetako berbena bat ezta, gure kontzertuek ordu eta erdiko iraupena dutelako, orduan gure zirkuitua oso estrukturatuta dauden horietatik kanpo dago. Oso kontzientek gara herriek eta auzoek kontzertu bat antolatzen dutenean zailtasun handiak dauzkatala kontzertu hori antolatzeko. Beraz, antolatzaileek esfortzu handia egiten dute eta hori kontuan hartuta 30 hamar saio izatea bakarrik udan oso gauza polita da. Jendeak taldea zuzenean ikusteko gogoia dauka.

Diskoa kaleratu duzue, baina plazak nahiago dituzue?

Zalantzarik gabe. Urte hauetan guztietan konturatua gara plazan egiten dugun lana oso garrantzitsua dela. Gaurko gizartean hedatu den diskurtsoa besteari kulpa botatzearena da. Politikan oso ageria da. Beraz, pentsatzen dugu plazan beste diskurtso mota bat eman daitekeela. Guk, euskaldunak, kalejira batean ondokoari eskutik heltzeko ahalmena dugu kontuan izan gabe nor dagoen ondoan. Plazan herriak sentitu dezake elkaturik. Gai gara denok elkarrekin dantzatzeko. Hor ikusten dugu funtzio sozial polit bat egin daitekeela, horregatik gu hor sentitzen gara oso bizirik.

Plazako sentimendu hori diskora eramatea posiblea da?

Bai. Inkontzienteki kanta bat egiten ari zarenean pentsatzen ari zara jendeak nola dantzatuko duen edo nola kantatuko duen; barre egingo duen ez duen egingo... Modu inkontzientean kanta guztiak toki horretara eramaten dituzu.

Komedia eta komeriak

Txalo ugari jaso zituzten Tarima Beltzakoek 'Madres y pasotas' antzeulanaren akaberan

ALTSASU

Iortia kultur gunea ia bete zuen publikoak esker ona azaldu zien egindako lanagatik. Dario Foren *La madre pasota* baka-rrizketa bost aktorerendako antzeulan moduan egokitu zuen Asun Abadek. Ama bat (Merche

Herrera) da obraren protagonista eta aitorlekuan apaizari (Juan Manuel Herrero) egindako aitortza da antzeulanaren haria.

Eszena-tokiaren eskuineko aldean aitorleku argizatuan aritu ziren bi protagonistak.

Baina amaren garai bateko pasadizoak gogoratzean eurak ilunpean gelditzen ziren eta eszena-tokiaren ezker aldea argitzen zen eta han amak kontatutakoaren antzezipena egiten zuten Nahikari Gonzalezek, Marta Diegok eta Olibi Galparsorok. Hainbat denbora salto izan ziren eta hirukotea makina bat pertsonaiaren larruan sartu zen. Obra dinamikoa suertatu zen. Dibertigarria. Errepikapenek umore egoerak azpimarratu zituzten. Aktore lan handia

egin zuten Tarima Beltzako kideek Jon Barbarinen esanetara. Guztiagatik txaloak.

Taldearen historia laburbiltzen zen bideoa ikusteko aukera izan zen emanaldiaren aurretik eta, txalo zaparrada jaso ondoren taldeak ikusleak pastak dastatzera gonbidatu zituen. Hala eskertu nahi izan zieten ikusleei 10 urte gehi bat horietan emandako babes. Antzezlanean atrezzo moduan erabilitako elementua photocall egiteko utzi zuten.





Musika eta dantza eskolako ikasleak ikasturte amaierako emanaldian.

'Estereotipoak hausten' musika eskolako ikasleen emanaldia

Berdintasunaren aldeko kontzertua eskainiko dute astelehenean musika ikasleek, 19:00etan, Iortian.

ALTSASU

Altsasuko musika eta dantza eskolan onartu berri den Genero berdintasunaren planaren harira *Estereotipoak hausten* berdintasunaren aldeko kontzertua egingen dute eskolako ikasleek. Astelehenean, garagarriaren 4an, izanen da emanaldia, 19:00etan, Iortia kultur gunean. Sarrera doan da.

Kontzertuaren helburua da musikaren munduan ematen diren estereotipoekin amaitzea: "instrumentu batzuek gizonezkoendako direla eta beste batzuek emakumezkoendako direla pentsatzen da, eta horrekin hautsi nahi dugu", azaldu du Jokin Borromeo musika eta dantza eskolako zuzendariak. Beraz, kontzertuan tradizionalki emakumezkoena kontsideratu den zeharkako txirula mutilek joko dute, eta, aldiz, tronboia edo tuba, gizonezkoen instrumentu-

tzat hartuta daudenak neskek joko dute.

"Zorionez gure eskolan holako ikasleak ditugu". Musika kontzertua izanen da, eta musikari gazteak bakarka edo talde txikitik ariko dira. "Denetarik" joko dute: musika herrikoia, klasikoa... Estereotipoak "hautsi" dituzten ikasleek ez ezik, "beste talde batzuk" joko dute ere emanaldian.

Berdintasun planaren barruan hainbat ekintza aurreikusituztute. Lehenengoa astelehenean emanen duten "estereotipoak hausteko" kontzertua da, baina emakume konpositoreen lanekin kontzertua eskaintzea aurreikusituztute. "Emakume konpositoreekin datu base bat egiten ari gara, eta horretaz baliatuz kontzertua egitea izan daiteke hurrengo ekintza". Berdintasun plana duen lehenengo musika eta dantza eskola da altsasukoa.

Dantzari Txiki eguna igandean Etxarri Aranatz

ETXARRI ARANATZ

Etorkizuna dantza taldeak antolatzen du Etxarri Aranatz egingen den Dantzari Txiki eguna. Igandean izanen da. Sakana dantzariekin batera Urnietako Dantza Taldea ariko da.

Dantzariak 11:00etan bilduko dira hamaiketako hartzeko, eta 12:00etan kalejira egingen dute

herritik zehar. Geldiuneak egingen dituzte eta talde bakoitzak hainbat dantza eskainiko ditu. 13:00ak aldera eguerdiko emanaldia egingen dute plazan: dantzari guztiek Agintariena eta Agurra dantzatuko dute. Ondoren, hainbat dantza egingen dituzte, eta elkarrekin dantzatzen amaituko dute eguna.

Euskal flamenkoa 'musika plazan' zikloan

'Sonakay' taldeak euskal musika eta flamenkoa uztartzen ditu. Igandean emanaldia egingen du Etxarri Aranatz

ETXARRI ARANATZ

Txoriak txori Mikel Laboaren abestiaren bertsio flamenkoa-rekin egin zen ospetsu Sonakay euskal flamenko taldea. Telebistako talentu saio batean parte hartu zuen taldeak, eta euskal musika eta flamenkoa uztartuz publikoa liluratu zuen. Igandean Etxarri Aranatz emanaldia egingen dute, 19:30ean, plazan. Aurreko igandean *Manez eta kobreak* taldeak plaza astindu zuen.

Etxarri Aranatzko musika plazan zikloak zuzeneko musika eta "plazan giroa sortzea" nahi du, Amaia Ijorra herriko Kultura teknikariak adierazi duenez. Kontrasteen musika plazan zikloa

izaten ari da aurtengoa. *Manez eta kobreak* taldeak folk musika emanaldia eskaini zuen igandean. Metalezko instrumentuekin aritu ziren plaza astinduz.

Musika plazan zikloaren hirugarren emanaldirako, garagarriaren 3an, euskal musika eta flamenko fusioa izanen da Etxarri Aranatzko plazan. Sonakay euskal ijito taldea da musika bi estiloak uztartzen arduraduna. Haien musika sortzeko Mikel Laboa eta Benito Lertxundi euskal musikarietan eta Camaron de la Isla eta Paco de Lucia flamenko musikarietan inspiratzen dira, besteak beste. Lehenengo diskoa grabatuko du Sonakay taldeak.

Abesbatza txikiaren emanaldia

Etxarri Aranatzko Abesbatza txikiak emanaldia eskainiko du Andra Mari baselizan, 18:30ean. Ikasturte amaierako kontzertua egingen du. Abesbatza txikiak, hortaz, ikasturtean zehar ikasitakoaren emaitza ikusteko aukera izanen da. Txikiak Etxarri Aranatzko Abesbatzarekin aritu ziren larunbatean Arbuzuko elizan.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Salve Regina, mater misericordia!!



Evaristo abeslaria lasai bizi zitekeen arazorik izan gabe bere etxean sartuta, Aguraingo haize garbia arnasten eta bere seme-alaben seme-alabei garai haietako pasadizoak kontzertatzen. Baina, zoritxarrez, *Hertzainak* taldeak kantatu zuen bezala, sasoi latzak dira hauek, egunero, dena okerrago dago (*The Pioneers* "Time hard" gogoan, *The Selecter* taldearen bertsioan), eta ezin izan da

etxean goxo-goxo gelditu.

Rocker zaharra da Evaristo, *La Polla Records* arima izan da lehen, *Gatillazo* taldearena da orain. 30 urte baino gehiago, ia 40, pasa du eszenatokiaren gainean: inor ere ez dago munduan handik jeitsiaraziko duena.

Cadizen egon da egun hauetan. Andaluziako bideetan atxiki eta identifikatu dute. Hemen, Euskal Herrian, bidea motza da, baina han da luzia. Hain da luzia ezen birao egiteagatik bide bazter batean Evaristo salatu duten. Aho garbikoak dira. Bere hitzekin iraindu omen die. Zuri, berriz, iraintzen badizute... izorra hadi!! Ahoa irekitzen baduzu agian beste zartako bat hartuko duzu. Hobe txistuka hastea: la, la, la, oh, oh.

Niri behin aingeru batek txua bota zidan aurpegira

beste baten aurrean (salaketa jarri ordez, etxera joan nintzen bigarren karkaxari itxoin gabe) eta beste behin kotxeko pilotoa apurtu zidan beste batek makil kolpe ezti batez... baina nik, txapeldun bat bezala, nire ezpainenak irriñorik ederrena galdu gabe, ez nion paperik eskatu... Hori bai, harengandik urrun nengoenean, *Vendettaren* bertsioa ozen-ozen jarri nuen nire autoko irratian: "Every day things are getting worse. Time's so hard, la, la, la, oh, oh."

Evaristo, zaharra da, baina gazte sentitzen da. Izan ere, gazte inguratuta dago: txiolariz, txontxongilo-erabiltzailez, rap kantariz eta (zahar batzuk ere tartean) Kataluniako diputatuz eta presidentez. Denak daude adoretso goiari eutsiz, kartzelan edo atzerrian, preso edo iheslari. Batzuk errepedean atzemanik, beste batzuk Altsasuko taberna batean goizeko 5etan. Denak ari dira askatasunaren zain: la, la, la, oh, oh.



Zarata ikuskizuneko dantzariak. NAGORE DIAZ

Barruko zarata kanporatzeko dantza ikuskizuna bihar

Irantzu Gonzalez dantza eskolako ikasleek 'Zarata' ikuskizuna egingen dute bihar lortia kultur gunean.

ALTSASU

"Gogoak nituen perkusioa eta dantza uztartzen zituen ikuskizun bat sortzeko", adierazi du Irantzu Gonzalez dantzariak. Dantzariaren dantza eskolako ikasleek egingen dute *Zarata* ikuskizuna bihar, 18:00etan eta 20:00etan, Iortian. Modern jazz, dantza garaikidea eta mix dantzako ikasleek parte hartuko dute. "Bereziki dantza garaikidea eta dantza afrikarrak sartu ditut".

Zarata ikasturte amaierako emanaldia da, baina ikuskizun itxura du. Bi talde egin behar izan zituen ikasturte amaierako

emanaldiak egiteko, hortaz, haurrekin maiatzaren 20an *Rey leon* musikala egin zuen, eta helduek *Zarata* ikuskizuna egingen dute bihar. "Gazte eta helduen taldeek parte hartuko dute".

Dantza aldetik afrikako dantza estilora jo du Gonzalezek. Perkusioa izanen du oinarri ikuskizunak, "gorputzarekin edo tresnekin egindakoa". Publikoari zirrara lortaraztea da helburua: "barruko zarata kanporatzea". Mayumana perkusio taldetik hartu du inspirazioa ere ikuskizuna sortzeko. Sorpresak egon direla aurreratu du.



Dantzariak kalera

Dantzaren Nazioarteko Eguna apirilaren 29an izan zen, baina Irantzu Gonzalez dantza eskola buru belarri ari da ikasturte amaierako emanaldiak prestatzen eta ikasleek ezin izan dute dantzarien eguna orain arte ospatu. Ostiralean ospatu zuten lortia zabalgunean emanaldi xumea eskainiz. Milakolore elkarteko kideek parte hartu zuten ere.



JUUL sari banaketan parte hartu zuten egileak, ikasleak eta antolatzaileak. KIKI

Idazle eta ilustratzaile kuttunenak sarituak

JUUL hauteskunde literarioen sari banaketa ekitaldia egin zen asteazkenean lortia kultur gunean. Ikastoletako ikasleek hauteskunde bidez aukeratu zituzten idazle eta ilustratzaile gogokoenak, eta egileek aitortpena jaso zuten Altsasun.



ALTSASU

Nafarroako Ikastolen Elkarteak JUUL hauteskunde literarioen emaitzak ezagutzera eman zituen Iortia kultur gunean egindako sari banaketa ekitaldian. Nafarroa Oinez ekimena antolatzen duen ikastolari dagokio sari banaketa antolatzea, hortaz, aurten Iñigo Aritza ikastolak zeukan ekitaldia Altsasun antolatzeko ardura. Sarituek aitortpen berezia jaso zuten: Faustino Azkorbe artista nafarrak sortutako saria.

Apirilean egin ziren ikastoletan JUUL hauteskundeak. Hauteskunde hauetan haurrek eta gazteek haien liburu, idazle eta

ilustratzaile gogokoenak aukeratu behar zituzten, gainera, "hauteskunde prozesua zer den ikasten dute ere". 54 ikastolek parte hartu zuten hauteskunde kanpainan, eta 15.832 boto jaso ziren liburuen kategorian eta 7.338 ilustratzaileen kategorian.

Sarituak

JUUL hauteskunde literarioen sari banaketan haurren eta gazteen idazle eta ilustratzaile bozkatuenek aitortpena jaso zuten Nafarroako Ikastolen Elkarteak Iñigo Aritza ikastolarekin elkarlanean antolatutako sari banaketa ekitaldian. Ikasleen erabakiz, honako idazle eta ilustratzaileek jaso zuten saria: Olga

de Dios, Joana Ziganda, Paddy Rekalde, Ana Jaka, Estibaliz Vivanco, Lur Gallastegi, Castillo Suarez, Jasone Osoro, Jon Arretxe, Iosu Mitxelena eta Joseba Larretxe "Josevisky". Jasone Osoro, Castillo Suarez eta Toti Martinez de Lezea izaten dira urtero idazle kuttunenak, baina izen berriak agertu dira ere: Joana Ziganda eta Estibaliz Vivanco, esaterako. Ikastolako ikasleek banatu zituzten sariak.

Ekitaldian izan ziren Eneida Carreño Iñigo Aritza ikastolako lehendakaria, Mikel Asiain NIEko lehendakaria, Javier Ollo Altsasuko alkatea eta Maria Solana Hezkuntza Departamentuko kontseilaria.

Eneko Lazkoz bertsolaria Orixe sarian bigarren sailkatua

Kartzelako laneko bertsorik onenaren saria irabazi zuen bertsolari etxarriarrak

ETXARRI ARANATZ

Hiru urteko etenaren ondoren izan zen Orixe Saria 16. edizioa Añorgan. Iñaki Zelaiak irabazi zuen Orixe saria 248 punturekin eta Eneko Lazkoz etxarriarra bigarren sailkatua izan zen 247

punturekin. Lazkozek, gainera, kartzelako laneko bertsorik onenaren saria jaso zuen.

Igandean jokatu zen Orixe saria Añorgan, hiru urteko etenaren ondoren. 16. edizioa zen. Iñaki Zelaiak irabazi zuen Ori-

xe Saria eta bere atzetik Eneko Lazkoz etxarriarra (247 puntu), Nahikari Gabilondo (247 puntu), Unai Gaztelumendi (235 puntu), Iratxe Ibarra (234 puntu) eta Manex Mujika (227 puntu) gelditu ziren. Enekok Lazkozek kartzelaren inguruko bertsorik onena egin zuen, eta kategoriarako saria eraman zuen.

Eneko Sierra aritu zen aurkezle lanetan eta epaimahaia Martin Aramendik, Mikel Belokik eta Zigor Leundak osatu zuten.



Martin Larraza Kintana Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea. NUP

"Selektibitatera lasai joan. Dena ematera!"

Martin Larraza Kintana Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) enpresen kudeaketako irakaslea, aurreko 8 urteetan selektibitate azterketaren arduraduna izan da. Probak heldu den astean egingen direla eta harengana jo dugu argibide eske

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

1 Selektibitatea du izena, edo beste izen bat du orain?

Orain BEUS hots egiten da: Batxilergoaren Ebaluazioa Unibertsitatearen Sartzeko.

2 Zergatik aldatu da?

Jose Ignacio Wert ministroaren errebalida famaturengatik.

Azkenean erabaki zen Hezkuntza Estatu Legea lortu arte hori etengo zela eta selektibitatearekin jarraituko genuela.

3 Eta mamia ere aldatu da?

Ez, funtsean berdina da.

4 Zenbat azterketa egiten dituzte?

D eta A eredukoek normalean 7 egiten dituzte, fase orokorra

gehi bi. Batzuk hiru ere, baina normalena bi egitea izaten da, nota igotzeko bi erabiltzen direlako.

5 Zeinek prestatzen ditu?

Ikasgai bakoitzeko, unibertsitatearen aldetik aholkularia hots egiten dioguna dago. Eta ikastetxeen aldetik koordinatzailea deitzen dena. Lege be-

rriaren kontura eta azterketak bien artean jartzen dituzte. Normalean hiru azterketa desberdin prestatzen dituzte. Legez azterketa bakoitzak zailtasun eta egitura bereko A eta B aukera izan behar ditu. Eta gero hiru azterketa horiekin zozketa egiten da. Bat ohiko deialdian jartzen da, bestea ezohiko deialdian eta bestea erreserban gelditzen da.

6 Noizko daude prest azterketak?

Normalean urte hasieran prestatzen dira eta gordeta egoten dira. Hiru azterketa egiten dituztelako eta gero zozketatu egiten delako. Azterketa prestatzen duen jendeak ere ez daki zein galdera izango diren.

7 Proba egunetan gelan zaintzen edo zalantzak argitzen egotea tokatzen zaizue?

Boluntarioak eskatzen dira, bai unibertsitatean bai ikastetxeetan. Zure jakintza arloaren arabera ikasgai batzuk zuzendu ditzaitezue edo ez. Boluntario horiekin, zozketa bidez, epaimahaiak sortzen dira. Azterketa horiek guztiak zaintzeko eta zuzentzeko eta hori guztia, selektibitatea epaimahaika antolatzen da. Zazpi epaimahai daude, sei Iruñean (bi euskaraz) eta bat Tuteran. Euren espezialitateko azterketa zuzentzen dute. Baina bere azterketa eta beste batzuk ere zaintzen egoten dira.

8 Guraso batzuk kexu dira ikastetxe batzuek notak puztu edo gutxiegi puntuatzen dutela. Selektibitateak nork bere tokian jartzen du?

Denek azterketa bera pasatu behar dutenez, hori guztia bere

tokian jartzen du. Horrek, nik uste, laguntzen duela ikastetxeetan zuzendako desbideratze horiek ez gertatzea.

9 Eta aurten probaren ardurarik gabe, falta sumatuko duzu?

Ez. Beste zeregin batean egonen naiz, epaimahaikide. Nekea sumatzen nuen eta erreleboa eskatu nuen. Ni laguntzeko gelditu naiz.

10 Zure sarbide probaz zer gogoratzen duzu?

Gogoratzen dut Gurutze plazako institutuan egin genuela. Altsasutik Iruñera pixka bat erdi galduta joan ginen. Gaur egun ikusten dudan jendearen urduritasuna eta presio modukoa, notak... Nik ez dut gogoratzen presio hori nuenik. Nire helburua zen ea gairak zintzen nuen. Orain iruditzen zait, agian okertuta nago, presio gehiago dutela ikasleek. Ez bakarrik gairak, nota honetara iritsi behar naiz.

11 Zer aholkatuko zenieke heldu den astean NUPen azterketak egitera joanen direnei?

Betiko aholkua da. Agian oso erraza dirudi. Nik uste baliagarria dela: lasai egon daitezela. Azkenean, seguru nago, Batxilergoko 2. urte osoan, nolabait selektibitatea entrenatzen egon direla, azterketa horiek eta. Han aurkitu behar dutena institutuan egin berri dituzten azterketen antzekoak dira, egiturari, zailtasunean... Hemen gairak badituzte, pentsa dezatela lasai joatea. Kontzentratuta, hori bai. Dena emateko prest. Azkeneko urteetan beti ongi ateratu dira, eta aurten hala izanen da.

Bazkide sarituak

- Anne Rodriguez Kinta (Iruñea)
- Amaia Azpiroz Bengoetxea (Lizarraga)
- Felix Mendiluze (Altsasu)
- Mercedes Lazkoz Flores (Lakuntza)

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. SARIA:
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
 EUREKA ZIENTZIAREN MUSEOA: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
 DONOSTIAKO AQUARIUM: SARRERA BANA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN



eureka!
zientzia museoa
kutxa FUNDADORA



CAMPING
ARTAZA



Ekain berri



gaztezulo



beleixeguaixe



lacturale



AQUARIUM